



113 ZULO⁰KO OROIMENA

Orain dela 20 urte gertatu zen Pasaia sarraskia • Kurro eta Pelitxo tiroz josita hil zituzten, Txapas eta Pelurekin batera (22-27)




SUKALDEKO ALTZARIAK BAINUGELAK HORMAN SARTUTAKO ARMAIRUAK

PEREZ ARREGI, 9 Tfnoa. eta Faxe: 943 15 05 10



mugi
kirolak


Ez egon geldirik



Enparan kalea 8, Tel. 943 - 151004

ODONTOLOGI OROKORRA

- > Bideo bidezko diagnostikoa
- > Erradiografia digitala
- > Hagin-ateratzeak (azkenaginak...)
- > Endodontzia
- > Peridontzia
- > Garbiketa
- > Aho erreabilitazioa



HORTZ KLINIKA

Antonio Rafaniello

389 Koleg.

Enparan 8 - 1 Tel.: 943 81 67 36

ODONTOLOGI ESTETIKOA

- > INPLANTEAK
- > Koroak
- > Ahoko zubiak
- > Karilak
- > Hortz zuriketa
- > Protesi finkoak eta mugikorak
- > Odontologi tratamendu integralak

15 URTE ZUEN ZERBITZURA!



press to - Gunea

Kalitatezko Tindategi Azkarrak

GARBITU INAUTERIEAKO JANTZIAK ORAIN!

Guardia kalea, 3 AZKOTIA Tel. 943 85 16 61

Jose Artetxe, 9 AZPEITIA Tel. 943 81 63 62

San Francisco, 22 ELGOIBAR Tel. 943 71 05 01

Julia Tercero,
PPko
zinegotziari
elkarrizketa
(12-14)

'Hitza'-ko
eragileen
funtzio
garrantzitsua
(18-19)



Klik!
Fundiziyuek
adio hamar
urteko bideari
(36-38)




Zu zeu!
Josu Agirre
erretiratua
(42)

uztarria

Garai bikainak izan ditu otargintzak Nuarben,
baina gaur egun bestelako egoera dauka
lanbide horrek; hona hemen azken arrastoak

NUARBeko AZKENEKO HIRU OTARGINAK



Nuarben egindako asto otarra bat. / UZTARRIA

filmitze Oruesagasti

Lanbide zaharra da otarginarena; orain 70 urte jende ugari bizi zen Nuarben lanbide horretatik, baina gaur egun egoera oso ezberdina da. Urte batzuetatik hona, beherakada nabarmena izan du Nuarbeko otargintzak. Otargintzaren garai oparoenean, 60 lagun inguru aritzen ziren Nuarben otarrak egiten. Familia osoak aritzen ziren zumitzak eta gainerako erreminta guztiak hartu eta otarrak egiten. Fabrika bat ere izan zen; gaur egun eraikina Azpeitiko Udalak dauka erosita. Uda garaian, eguraldia lagun zenean, etxe atarietan otarrak josten aritzen ziren familiako kide guztiak.

Otargileak gutxitu egin dira, eta otarrak egiteko erabiltzen den egurra ere gure basoetan gastatzen ari dela diote. Egurra zahartua dago, eta zahartutako egurra ez da otarrak egiteko material egokia.

Garaiak asko aldatu dira, eta orain hiru otargile besterik ez dira gelditzen Nuarben. Uztarría Juanito Zabaleta Txistu, Jose Mari Etxeberria eta Jose Sarasuarekin izan da. Badirudi orain arte familiako ohitura eta auzoko altxorra izan dena galtzear dagoela Nuarben. Beraz, ez da erraza izango hemendik aurrera otarginen lana. Batetik, beren lanbide maiteak jarraipena izan dezan atzetik datorren jendea bilatu beharko dute. Bestetik, berriz, otarrak egiteko materiala ziurtatu beharko dute.

Garai batean Nuarbe eta otargintza oso lotuta zeuden, baina denborarekin lokarria askatzen joan da, eta gaur egun lokarria etetear dago. Nuarbetarrek diote "otargintza ofiziorik zaharrena" dela.

» AZKEN OTARGILEAK

• **JOSE MARI ETXEBERRIA.** 81 urte ditu, eta 70 urte baino gehiago daramatza otargintzan. Zortzi urte zituela hasi zen otarrak egiten.

• **NUARBEO PLAZAN.** Nuarbera joan eta plazara jaitsiz gero, hantxe aurkituko du-gu Etxeberria etxe baten azpian, otarrak egineta egin.

Zortzi urte zituela hasi zen, aitarekin eta amarekin batera, otarrak egiten. “Hasiera batean, otarra azpiak, ipurdiak ixten hasi nintzen”. Ondo gogoratzen du Jose Mari Etxeberriak etxean lehen otarrak egiten ibiltzen zireneko garaia. “Hiru seme etxean, eta hiru anaiak ginen otargileak. Garai hartan goizeko seiatarako ekiten genion lanari, eta gaueko bederatzia aldera arte otarrak egiten aritzen ginen. Ordu asko ematen genituen lanean. Anaia batek soldadutza egitera joan zenean utzi zion otarra egiteari; bestea, aldiz, Irunera joan zen bizitzera, eta han ere otarra egiten jarduten zuen”.

Denborarekin, ordea, diru iturri zena bigarren mailako ofizio bihurtu zen Nuarbeo otargilearentzat; izan ere, otargizak ez ditu beti garai oparoak bizi izan.

“70 urte inguru daramatzat otarrak egiten. Horietatik hamasei lantegiko lanarekin uztartu ditut. Lanetik irten eta tarteak nuen segitzen nuen otarra egiten. Ordu-rako ikusten zen otargintza gainbeheran zeto-rela. Jende askok utzi zion otarra egiteari, eta lantegiko lanari eutsi”.

Baina gauzak asko aldatu direla uste du Jose Mari Etxeberriak. “Gu gazteak ginela, Nuarben 60 otargile inguru izango ziren. Familiak etxeetan aritzen ziren lanean, eta fabrika bat ere bazen. Orain, berriz, hiru besterik ez gara otarrak egiten aritzen garenak. Eta lehengo aldean gutxi saltzen da otarra”.

Urte asko dira Etxeberriak otarra egiten daramatzanak, eta egin dituen otarra guz-

“Gu gazteak ginela, Nuarben 60 otargile inguru izango ziren. Familiak etxeetan aritzen ziren lanean, eta fabrika ere bazen”

Jose Mari Etxeberria
(otargilea)

tien kontua aspaldi galdu zuen. Etxeberriak, jakina, ondo daki nola egiten den otarra bat: “Nik era ezberdinetako otarrak egiten ditut. Esku-otarrak, perretxikoetarako otarrak, asto-otarrak... Baina, azken horiek lan handia eskatzen dute. Une honetan, tolosar batzuek eskatu dizkidaten zortzi perretxiko otarra egiten ari naiz. Gaur egun, normalean, enkargu bidez egiten dugu lana”.

Jose Mari Etxeberriak egurrak lagatzeko ez du oso urrutira joan beharrik, putzua etxe parean baitauka. “Orain egur gutxi dut putzuan. Laster egurra biltzera joan beharko dut berriro”.

Etxean otarra egiten ondorengorik ba al duen galdetzean, zera dio Etxeberriak: “Ez dute ikusi ere egin nahi. Otarra egitea lan gogorra da; ordu asko eta diru gutxi. Ordu asko behar da, zerbait egingo bada”.

Badirudi, beraz, gaur egun gazte jendea ez dagoela prest lana gogor egin eta ordainsari gutxi jasotzeko. Horrela, bada, Nuarbeo Etxeberriatarren etxean ere ofamiliatik datorren ohitura eta lanbidea galtzear da. Baina, Jose Mari bereari segituko dio, otarrak egin eta egin, eskatzen dizkieten artean.



Jose Mari Etxeberria egurra zuritzen. / KEPA URBIETA



Etxeberriak eginda eta bukatutako otarrak. / KEPA URBIETA

● **JUANITO ZABALETA 'TXISTU'.**

Hamar urterako hasi zen lanean, eta oraindik lan berean jarraitzen du.

● **SALMENTA.** Aspaldian, inguruan ez ezik, Zaragoza, Bilbo eta inguruetatik ere jasotzen ditu otarrak egiteko enkarguak Zabaletak. Estimazioa dute haren otarrek okinen artean.

Oso gazte hasi zen Juanito Zabaleta Txistu otarrak egiten. 10 urte betetze-rako hasi zen aitaren alboan otarrak egiten. Etxegiroan ikasi zuen lana, beraz. "Txanpona ateratzen zen orduan lantegi honetan. Familian, lana katean egiten genuen. Gizonezkoak zumitzak atera, eta emakumeek otarrak josten jarduten ziren". Hala ere, Txistuk gaur egun ere gogor eusten dio otarrak egiteari. "Egunero jaikitzen naiz 07:00ak inguruan, eta gaueko hamarrak jo arte hemen aritzen naiz, otarra egin eta egin. Beti sortzen da egitekoren bat. Igandeetako lana, berriz, aste guztirako putzutik egurra ekartzea".

Otarrak egiteko, beharrezkoa da material ona izatea, baina hura eskasten ari da. "Otarrak egiteko, gaztaina, gaztaina txertako erabiltzen dugu. Baina egurrak ere zahartu egiten dira. Sei-zazpi urteko egurra ederra izaten da, baina hogeitaka urteko egurrak ez du balio otarra egiteko", esaten du.

EGURRA, BASOTIK. Otarra bat otargileak egindako lanaren azken emaitza da, baina otarra egin aurretik bada beste egitekorik ere. "Basotik egurra ekarri eta putzuan sartzen da. Gero, otarra egin nahi den neurriaren arabera moztu behar da egurra. Ondoren, egurraren hezetasuna mantentzeko, putzuan bizpahiru urtez uzten da. Denbora hori pasatu eta gero, egurra labean sartu, eta ondoren zumitzak eskuz ateratzen dira. Egurra apaindu, eta azkenerako otarra jostea gelditzen da", dio Txistuk.

Ez du hemen inguruan bakarrik saltzen, toki askotatik jasotzen ditu otarrak egiteko eskaerak. Azken aldian, Bilbotik, Zaragozatik (Espainia) eta inguruetatik izan ditu eskaera dezente.



Txistu, otarra bat bukatzen. / UZTARRIA



Egurrak gordetzen diren putzua. / UZTARRIA

“Egunero 07:00ak aldera jaikitzen naiz, eta gaueko hamarrak aldera arte hemen aritzen naiz, otarra egin eta egin. Beti dago egitekoren bat”

Juanito Zabaleta 'Txistu'
(otargilea)



Otarra multzoa. / UZTARRIA

» AZKEN OTARGILEAK

- **JOXE SARASUA.** Igareta baserrian bizi da. Hamabost urte zituela hasi zen otarrak egiten.
- **IBILBIDEA.** Hamabost urte zituela lanean hasi zen; eta gero tailerrean hasi zen lanean. Baina tailerra itxi zutenean, Joxe Sarasua berriro bere kabuz otarrak egiten hasi zen.

Nuarbeko Igareta baserrian bizi da Joxe Sarasua; gelditzen den hirugarren otargilea da. Gazte hasi zen lanean, 15 urterekin ari zelako otarrak egiten. Denborarekin ordea, otarrak egiteari utzi eta Fernando Olaizola Tailerrean hasi zen lanean. Baina honek kiebra jo zuenean, berri heldu zion gaztetan horrenbeste ordu pasatu zituen otargintzari. “Hamaika urte eman nituen tailerrean, lanean. Hura itxi zutenean, lehenago utzitako lanari, otarrak egiteari alegia, ekin nion berri”. Ordutik hori izan da bere lanbide bakarra, eta hortik bizi da gaur egun ere.

Lehen familia osoak aritzen baziren ere otarrak egiten, Joxe Sarasuari otargintza ez datorkio familiatik. “Auzoko mutil zahar batekin hasi nintzen. Harekin urtebete pasatu nuen lanbidea ikasten, batere irabazi gabe, noski. Hasieran lan zaila da. Materiala ateratzea...”.

Sarasuaren ustez, edonork ez du asma-tzen edo ez du balio langintza horretarako, “trebezia behar delako otarrak egiteko”. Ez da ematen duen bezain lan erraza: “Eskua eta pazientzia behar dira. Pazientzia handia, gainera. Lan honetan ordu asko sartu behar dira. Otarra egiten hasi baino lehenago, materiala (egurra) basotik ekarri behar izaten da... Lan asko du”, esaten du.

Otarrak egiteaz gain, baserriko lanez ere arduratzen da Sarasua. Baserrian garaiak aldatu direla ere ederki nabaritu du; orain ez da ez astorik ezta otarrarik ere erabiltzen, eta hori guztia otargintzaren kalterako izan da. “Lehen, baserrian otarra asko



Joxe Sarasua, berak egindako otarrekin. / UZTARRIA


erabiltzen zen; orain, berri, plastikozko ontziak erabiltzen dira. Lehen otarra lan tresna zen, baina orain, gutxi erabiltzeaz gain, otarra adornurako objektu bihurtu da. Gaur egun otarrak estimazio txikia du gure artean”.

“Auzoko mutil zahar batekin hasi nintzen otarrak egiten; harekin urtebete egin nuen lanbidea ikasten”

Joxe Sarasua
(otargilea)

Baserrian bertan dauka Joxe Sarasuak ere egurrak lagatzeko putzua. “Egurra putzuan sartu behar izaten da, kanpoan utziz gero azala arrotu egiten zaiolako, eta hori ez da batere ona. Egurra kanpoan lehortzen utziz gero, egarritu egiten da egurra bera, eta azalik ez duen egurra labean sartzen bada, dena ihartu egiten da”.

Garai batean ordu ugari sartzen zituen Sarasuak otarrak egiten, baina gaur egun ordu dezente gutxiago pasatzen omen ditu. “Jubilatu moduan nago orain, eta lehengo aldean ordu gutxi pasatzen dut otarrak egiten. Saldu ere gero eta gutxiago egiten dela uste dut”, gaineratu digu Joxe Sarasuak.



Jasotako egur multzoa. / UZTARRIA



Putzuan egurrak gordeta. / UZTARRIA



Bizi osoko lanaren isla / UZTARRIA



Beloki
Kale Nagusia 75 Tel. 943 85 04 82
AZKOITIA
Jose Arrieta, 21 Tel. 943 151392
AZPEITIA



PATXO

EDUARDO BERASATEGUI
Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragirik Onenak
San nazio Kaleko 12an
Urrut. 943 81 14 98



MATXIN
bertako skela
HARZUBIA, 26 D
IFI 81 60 25
ETXEOA 15 00 03
AZPEITIA



Harategi Odriozola
Harategi
Especializatur
Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015



San Sebastián

HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA
ETXEO URDAIKIA
FORU HIBILBIDEA, 4
TFNOA. 81 15 94
AZPEITIA



ZABALA HARATEGIA

KALITATEZKO HARAGIA
BUSTINZURIKO ERREBALA, 8
TFONOA.: 943 811671



BERTAKO HARAGIA... ...GURE HARATEGIETAN

EUSKO LABEL



KALITATEA

**EUSKAL
OKELA**



CARNE DE VACUNO
DEL PAIS VASCO

amuko zubitik Aitor Aranguren



TREGUA?

Denok lasai, ez urduritu, berriz ere gure salbatzaileak agertu zaizkigu eta. Den-bora luzean ez ditugu sentitu ere egin, ez gi-nen haien odolez beteriko ekintza ausartez gogoratzen (gogoratu bai, baina ahanzte nahiago), eta bat batean, bideotxobatekin, *alehop!* Prentsa-telebista eta batez ere hauteskundeetako protagonista bihurtu dira. Zer gutxi behar den bazter guztiak aztoratzeko. Garai berriei estrategia berriak; dagoeneko ez daukate inor atzetik tiroz hil beharrik *La Razón* eta *Abc*-ren portadetan azaltzeko. Tristeena da Burgostik behera abertzale guztiok zaku berean sartzen gaituztela.

Hemen inork ez du haiei buruz ezer jakin nahi, eta Katalunian eta Espainian zerbait izan nahi. Posible al da ERCri eta katalanei halako errespetu falta azaltzea! Nolatan ausartzen dira beste nazio bateko egoera politikoa baldintzatzen? Hurrengo tregoa non? Galizian?, Andaluzian? Aragoi? Ikusten nago, hurrengoan

Kaiton agertuko zaizkigu, Urrestillan edo Aratz-Errekan tregoa deklaratzeko.

Gizarte honen gehiengo handi eta zabal batek argi eta garbi azaldu dio iluminatu talde honi nekatuta eta aspertuta dagoela haiekin, eta ez duela inoren tutoretzarik behar gauzak erabakitzeko. Ziur nago haien aldeko jende askok ere ez duela ulertzen oraingo *bonbero* irteera hau.

Analisi politiko sakonetan sartu gabe, nik behintzat garbi daukat; *mini-tregoa* hau PPrentzat da soilik mesedegarria. Erraza da imajinatzea Aznar eta Raxoi (puru handi batekin), barrez lehertzen; izan ere, ETA PPren aliaturik leialena izan da azken urteetan, eta oraingo honetan ere ETAk lagunduko dio berriro PPri gehiengo osoa lortzen, ETAre azkenengo bideo triste hori publikitate-kanpaina garestiena baino eraginkorragoa da eta.

ETA: utz gaitzazu bakean, behin betiko.

azketako ude Kepa Susperregi

XIX. MENDEKO MARGOAK
PARROKIAN

Bi urte pasatu dira dagoeneko Imanol Eliasek *Oinpean izan ditugu urteetan zehar* izeneko artikulua idatzi zuenetik. Parrokian, Soledadeko Kaperan lurperatuta zeuden eskeletoak ikusteak eragindako harridura eta gogoeta eskaintzen zigun han.

Agerian ziren, ordurako, kanpai bat egiteko erabili zen moldearen aztarnak, baita antzinako lurperatzeak ere (gure herria sortu zen garaioak ote?).

Bi urte pasatu dira, eta, lurpean ez ezik, pare-tatan ere azaldu dira antzinako artisten lan aztarnak: egitura arkitektonikoen margoak, gizaki eta abereen irudiak.... Garai hartan ezaguna zen *grisalla* deritzan estiloan egindakoak. Sakristiatik teilatu aldera igotzeko eraikiko zuten eskailera borobilaren sarrerako atea, edo leihoa, hor dugu, orain, agerian. Ezkutuan zen guztia orain arte, gure begientzat.

Agerian zena ere aldatzen hasia da dagoe-

neko. Hilobi errenazentista egiten duten emakumeen irudiek —XIX. mende amaieran margotutakoak— berezkoa zuten kolorea hartu dute. Hasiera bateko itxura hartuko dute denborarekin.

Hilabete asko falta dira lanen amaiera ikusteko. Baina amaieran, zahar-berritutako kaperatxo bat izango dugu. Gure aurrekoen ahalegin eta saiakeren lekuko; garai bateko teknika eta ahalmenen adierazgarri; garai bateko ikuspegi erlijiosoaren nolabaiteko agerpen.

Duela urtebete edo, Euskal Telebistako erreportari batek hitz hauekin amaitu zuen Soledadeko Kaperan horri eskainitako erreportaia: "Azpeitiarrek museo txiki bat izango dute bere eguneroko ospakizun xumeentzat". Ea bada, gure kultur-ondarea aberasteko ez ezik, gure arteko otoitz giroa eta sinesmen bizitza zahar-berritzeko, bizi-berritzeko lagungarri gertatzen zaigun.

hiruko txikiyen

Iban Arregi

1 'HITZA'. Euskarazko prentsaren sektorea aurreraka doa; proiektu komunikatibo sendoak ari da sortzen, Herri-ikuspegia duten komunikazio enpresak. *Hitza*-k azpeitiarron prentsa irakurtzeko ohitura aldatuko duen, horixe galdetu du uztarrria.com-ek. Batzuek baietz diote, eta beste batzuek ezetz; dene-tik, azokan bezala. Kontua da orain Herri bezala erre-konoiztzen ez gaituen erda-razko egunkaria erosteko arrazoi (edo aitzakia) bat gutxiago daukagula, eta ez da gutxi. Eta Reala bigarren mailara jaisten bada...

2 DIRU LAGUNTZAK. "Neurri honetako proiektuek merezi eta behar duten babesa eta laguntza eskatzen diet herri-agintariei", esan zuen Laxaro Azkune Uztarriako lehendakariak Zarautzen, *Hitza*-ren aurkezpenean. Badaezpada jarri dut hemen, elurragatik-edo azpeitiar asko falta zelako otsailaren 19ko iluntze hartan...

3 DIRU LAGUNTZAK (eta bi). Eta diru laguntzez ari garela, otsailean bukatu da Azpeitiko kultur taldeentzat laguntza eskatzeko epea. Batzuek oraindik 2003koa jasotzeko dute, eta 2004koa eskatzen... Azken batean, taldeak atzera begira gehienbat, eta ez aurrera begira; aurrera begirako bidea nola egin pentsatzen ere bai, baina batik bat egindako bidean utzitako zuloak nola estali pentsatzen. Horixe delako azken batean hemen funtzionatzen duen diru laguntza politika. Helburu jakin batekin diseinatu-tako diru laguntza politika. Eta ez naiz ari ematen den kantitateaz, emateko moduaz baizik.



JULIA TERCERO. PPko kideak bi hilabete besterik ez daramatza Azpeitian zinegotzi karguan, eta erasokor hasi du legealdia. Kargua hartu zuen udalbatzarrean, besteak beste, “hau Espainia da” zioen Tercerok, eta aretoan esandako guztia espainolera itzultzeko “exijitu” zuen. Uztarriak egin dion elkarrizketan tonu eta jarrera berean segitzen du: ez dela etorri euskara ikastera, euskal herritarren erakundeak gutxiesten ditu —Udalbiltza, adibidez—, Habeakoak hutsaren pare jartzen ditu —2.027 boto zenbatu zituen Habeak; PPk laurdena—... Elkarrizketan garbi nabari daiteke Azpeitia ez duela batere ezagutzen, eta, gainera, orain Madrilén senatari izateko aukerak ditu. Politika-ri profesional izateko bidean da; Azpeitia bost axola zaio.

zer diyo?

EMAKUMEEN EKARPENAK ENDEARI

Berriz ere iritsi da martxoaren 8a. Mundu guztia emakumeon eskubideen aldarrikapenez gogoratzen den egun bakarra. Izan ere, egoera aldatu den ideia saldu digute, eta ondo saldu ere. Aitzitik, errealitatearen lerroarteko irakurketa egitera ausartzen bagara, hutsune nabarmenak aurkituko ditugu. Horren isla da emakumeok politika arloan, gizartean, kultura arloan... dugun presentzia murrizta.

Egun, emakumeok komunikabidetako zuzendaritza-postu eta errealitate informatiboan —hau da, edukietan— ia ikusezinak gara. Eta, arlo horretan, aipatzekoa da urte guztian ahaztuak izan diren salaketa, dinamika eta hausnarketak martxoaren 8ko egun bakar horren inguruan mugatzen direla. Emakumeon inguruko eskubideen trataerak transbertsala eta egunerokoa behar du izan!

Hezkuntza sistemari helduz, mistoa izateak ez du bermatzen hezkideatzailea izatea. Historia, arte eta zientzia liburuetan emakumeon ekarpen askotarikoa ezabatua izan da, ezezaguna bihurtuz.

Oraindik kiroletik bizitzea, emakume baten zat, oztopoz beteriko lasterketa da. Apenas hiru edo lau diren ezagutzen ditugun emakume

kirolariak, beste kopuru handi baten ekarpenak anonimotasunean galtzen diren bitartean.

Arlo horiez gain, beste arloetan ere ematen dira egoera baztertzaila edota diskriminatzaileak. Azken batean, jendarte patriarkalaren adierazpen isolatuak dira. Parekidetasuna lortzearen bidean, ziur gaude jendartea oinarritzen den baloreak errotik eraldatuz bakarrik lortuko dela.

Zenbat emakume ezagutzen dituzu arte munduan buru-belarri dabilzanak?

Zientzia eta teknologian aurkikuntzak egin dituzten zenbat emakume egin dira ezagun? Eta gizonezkoak?

Ezaguten al duzu langabezia..., barkatu, “lanpostu gabezia” zuzenean sufritzen duen emakumerik? Eta horien aldarrikapenik ezagutzen duzu?

AITORTZA. Lehendabiziko pausoa: historian arlo desberdinetan emakumeak egin dituen eta egiten ari den ekarpenak era publiko eta ofizial batean aitortzea da. Bakoitza bere espaziotik plazara. Ez martxoaren 8an bakarrik. Egun guztietan!

“Iritsi da martxoaren 8a. Mundu guztia emakumeon eskubideez gogoratzen den egun bakarra”

“Zientzia eta teknologian aurkikuntzak egin dituzten zenbat emakume dira ezagun?”

“Lehendabiziko pausoa: emakumeak egin dituen ekarpenak era publiko eta ofizialean aitortzea”

Izarraizpeko sorginak

akulue



Leire Ostolaza

GAZTEAK
ARRISKUAN
DAUDE

Hamahiru azpeitiar kartzeleratuak izateko arriskuan daude, eta haien aldeko manifestazioa izan zen joan den otsailaren 21ean. Hamairurak auzi beragatik auziperatu ez dituzten arren, haietako bederatzik orain pare bat urte herrian sona izan zuen mamuen gertakari harengatik dute hiru urte espetxean pasatzeko arriskua. Lanak ematen ditu horrela izango dela sinesteak; izan ere, inauterietan mamuz jantzi eta alkatea zena izutu izanari, epaileei denbora galduarazteko txorakeria deituko lioke edozein herritar xumek; nahiz eta kontra-koa pentsatzen duenik ere izan.

Neurritz kanpoko zigorra irudituko litzaidake, eta gertatuko balitz Azpeitia litzateke hogei-hogeitamar urte bitarteko presoan kartzel handiena duen herria, inguruko herrietako zenbaki zehatzik ez badut ere.

Hori ikusirik, galdera bat darabilkit, eta hemen bota nahiko nuke: zein da horrekin zabaldu nahi den mezua? Batek sinesten duenaren alde edo gaizki iruditzen zaionaren aurka zerbait egiteko prestutasuna badu kartzelan amaituko duela? Berritoki ere mundu honek lasai eseri eta ezer ez egiteko gonbitea luzatzen digu, horrela lasai ibiliko baitira gure bizitza erabakitzen duten horiek.

uztarria.com

'Urola-Kostako Hitza'-k aldatuko al du prentsa kontsumitzeko joera?



uztarria.com

Zaharretan
amonak ezin
bazkaldu

Kaixo denoi.

Uztarriara idatzi dudan iritzia honekin kexa agertu nahi dut, santotomasetan Zaharretan (Aitonena I-en) gure amarekin egin zutenagatik, ez ziotelako bazkaltzen eman, eta etxera bidali zutelako.

Eguerdiko ordu biak inguru ziren, eta gure ama hori Zaharretara joan zen. Inazia Imaz Iraola izena du, 87 urte ditu, bakarrik bizi da, eta herriko jai egun hartan etxean ezer prestatzen ez hastearren, hara joan zen zerbait bazkaltzera; kazuela txikiren bat jatea zen haren asmoa. Libre zegoen mahai batean jarri zen, alabak lagunduta. Neu hantxe tokatu nintzen. Eta orduan gertatu zen ezustekoa: Zaharretako tabernariak esan zion ez ziotela bazkaltzen emango, nahi bazuen hantxe egoteko, baina ez ziotela ezer aterako.

Gure amak erantzun zion libre zegoela mahaia, zerbait jan nahi zuela, eta, gainera, 87 urte izanik, ez al zuen Zaharretako tabernariak hori kontuan hartu behar. Tabernakoak berriz ere esan zion ez ziotela jaten

emango. Nonbait, geroago jende askori bazkaltzen ematekoak ziren, Santotomasak zirelako, eta barru giroa ere egiten zuelako, baina mahai hura libre zegoen, eta gure amak hantxe egin nahi zuen bazkari legea.

Baina ezin izan zuen bete bere asmo xumea: jende artean, festa giroan, kazuela txiki bat jatea. Jaiki, Zaharretatik irten eta han joan zen etxera, euri artean. Penatan. Eta haserre. Nola-bait esatearren, Zaharretatik bidali egin zuten 87 urteko amona.

Horixe esan nahi nuen, eta Uztarriara jo dut kasua publiko egitera. Oraindik oso haserre eta penatuta gaudelako gertatzen horrekin.

Eskerrik asko,

Jose Miguel
Muguruza Imaz

Karrera gehiago
irekita

Sokamutur garaian sansebastianetan baino karrera gehiago egon dira irekita karnabaletan. Ondo.

Eliz kalean —eliz atari inguruan—, itxita egon ohi diren hiru ireki egin dituzte: bi karrera eta sakristia. Bi karrerak, honelaxe:

Saturdei jirou

“Nire ama, horrenbeste urtean *Diario Antivasco* irakurtzen jardun eta gero, euskaraz irakurtzera pasatu da. Ez omen zuen ia ezer ulertzen, baina orain gutxienez euskaraz irakurtzen hasi da”.

leder

“Askori kostatu agiten zaie erdaratik orain euskaraz irakurtzera pasatzea. Berdin dio ama izan edo amama, hori alferkeria eta erosotasunean *enpoltrona-tuta* egotea da. Gauza denak kos-

zezen garaian tinbrea jo eta baleb.

Eliz kalean goian dago hutsunea. Ea hurrengo urterako zerbait eraginkorra egiten dutendendugun... eta karrera horietako etxejabeek beraiengain soilik ez duten pentsatzen.

Enekoitz

Solidarioekin
solidario

Lotsagarria iruditzen zait azken urteetan gazteen aurka ematen ari diren bidegabekeria multzoa (ez Azpeitian bakarrik).

Dagoeneko normaltzat jotzera iritsi gara, baina nola daiteke borroka bategatik gazte bati hiru urteko espetxe zigorra eskatzea, eta beste aldean zegoen jendeari ezer ez? Bastidaren inguruko inork ez al zuen muturrekorik eman? (entzun dudanez, gainera, lehenengo zartakoa hortik atera zen, baina horretan ez naiz sartuko).

Asko ez dela, beste gazte bat ere kartzeleratzeko arriskuan egon da, 5 urte eskatzen zizkion fiskalak PPko mitin baten aurreko protesta batean, ertzainen erasoan aurrean ikurrinarekin (paradoxa, ezta?) haietako bat jo omen zuelako. 5 urte?

Pentsatzen jarrita: ertzain hu-

tatzen dira, edo hain tontoak al gara ba azpeitiar eta euskal hiztunak, ezin dugula euskaraz irakurtzera pasatu? (...)”.

Aintzane

“Ezet esango nuke nik, gure herrian DV enkrastatuegia dagoela esango nuke nik.

Dena dela, *Hitza* irakurtzen jadun dudan guztietan gauza bera pentsatu izan dut: egokiago iruditzen zait *Hitza* astero argitaratzea, eta ez egunero. Horrela eskas samarra egiten zait, nahiago nuke astean behin irakurri eta lodiagoa izatea. Baina iritziak iritzi, lan hori hartzen

UZTARRIAREN WEB ORRIKO INKESTA

1. GALDERA: Elurra gustukoa al duzu

- Bai: %44
- Ez: %45
- Garaiaren arabera: %11

duzuenoi animo, ea bada pixkana-ka bada ere gauzak aldatzen diren”.

Antzeta

“Nik egunero irakurtzen du *Berria*, baina ulertzen dut ezin irakurri izana. Nire ustez, erabiltzen duen euskara modua ez da batere egokia euskaldun zaharrak berau irakurtzera bultzatzeko. Hobeto litzateke euskara sinpleagoan idaztea, eta ez *floritura* elegantekin. Horrela euskaraz irakurtzea zail egiten zaienek edo hori aitzakia moduan erabiltzen dutenek ez lukete oztoporik izango”.

Egunkaria aurrera!!!

“*Hitza*-ren gai hau oso ondo dagoela iruditzen zait. Bazen garaia Azpeitiko (eta Urolako) berriak euskaraz irakurtzeko. Orain arte, *uztarria.com* bakarrik genuen egunero euskaraz, eta bestela espainolez irakurri behar genituen berriak. Batzuetan ez da berri asko egongo hemen, baina bai bailaran. Gainera, beste eskualdeetan badago *Hitza*, eta oso ondo daude. *Uztarria.com*-eko edizio jarraitua eta *Hitza*-rekin kalitateko prentsa ‘uztartzten’ dela uste dut. Eta hori *Berria* egunkari nazionalarekin ahaztu gabe”.

bada kejie!



Kontu handiz ibili beharra

Landetan, bariantan, Lau Bide jatetxearen aurrean, oinezkoek ez dute batere lehentasunik. Oinezkoen semaforoak badaude, bai, baina ez daude martxan. Autoentzako semaforoak, berriz, laranja kolorean. Gainera, herriko saihezbidea izanik, autoak abiadura bizian pasatzen diren tokia da. Zebra bidea badago, bai, lurrean margotuta, baina...

I. Orbegozo

ra jo zuena Lagun onak-en partida ikusten zegoen zaletu bat izan balitz, eta ikurrinaren partez aterkia, 5 urte bai? (galdetu arbitro hari). Eta ikurrinaren partez Extremadurako bandera balitz, eta Badajozeko langile bat kolpatzailea? Denok daki-gu, gehienera, multa administratibo batetan geratuko litzatekeela.

Baina Euskal Herrian ez, Azpeitian ez! Zergatik? Gazteak eta orokorrean Euskal Herria kriminalizatzeko saioa martxan dagoelako. Eta erantzun beharra dago, ezker abertzalekoa izan alaez! Injustizia delako.

Solidarioekin solidario

Plastikozko edalontzirik ez

Nire ustez, Azpeitiko karnabalak oso onak eta giro onean igaro dira. Baina bada detaile bat ez dena halako ona: Azpeitiko tabernarien jarrera edalontziei dagokionez.

Karnabalak direla-eta, dena plastikozko edalontzietan ateratzen dute. Zerbait jarri behar dute haiek ere haien aldetik, ezta?

Plastikozko basorik ez!

Julia Tercero

PPren Azpeitiko zinegotzia

PPk lehen aldiz du Azpeitian zinegotzia, Habearen ilegalizazioari esker eduki ere, bestela ez zukeelako izango ordezkaritzarik. Julia Tercero donostiarra da kide hori; apenas ezagutzen duen herria

“Hemen gehiegi uzten zaie Habeako ilegalei”

Enekoitz Esnaola

Azokan buelta bat eman ondoren iritsi da hitzordura Julia Tercero, PPren Azpeitiko zinegotzia. Ondoan du Azkoitiko beste zinegotzi bat, baita beste *lagun* asko ere. Udaletxeko aretoan sartu gara Tercero, Azkoitikoa eta hirurok. Bi hilabete daramatza karguan, eta orain Madrilen senatari izateko aukera dauka. Politikari profesional izateko bidean dela dirudi. Tutik ez daki Azpeitiaz. Eta euskaraz ere ez.

● **Euskaraz ez dakizu.**

Ez.

● **Eta ikasteko asmorik ere ez.**

Saiatu izan naiz hiru aldiz, eta badakizkit esaten ‘altxa burua’, ‘mina daukazu’ —erizaina naiz—... baina zaila egiten zait ikastea. Frustratua sentitu izan naiz.

● **Azpeitiari buruz gehiago jakiteko, euskaraz jakin beharko duzu, ez iruditzen?**

Ahal dudana egingo dut.

● **Kargu publikoa zara herrian, azpeitiarren %87k euskaraz daki eta zuk ez. Esan batek dio zauden tokiko hizkuntzarekiko errespetua dela eduki behar den aurrenekoa.**

Nik errespetua diot euskarari. Baina euskararena ez da oso ondo egin, euskara politizatu egin delako.

● **Hasi da PPko bat betikoarekin. Gainera, politizatu, Espainiak egin du. Hor dago *Egunkaria*-rena. Begiratu zer dion Juan del Olmo epaileak: euskara erabiltzea delitu izan daiteke.**

Ez, ez, ez. Hori ez da delitua.

● **Hori dio Del Olmok, eta PP, zure alderdia, haren alde azaldu zen *Egunkaria* itxi zutenean. Euskara susmopean jarri dute, duzue.**

Zuek ikusten duzue horrela, susmopean, ez guk. Baten batek ez badu ezer ezkutatzeke, berdin dio lana euskaraz egin edo erdaraz egin. Beraz, ni ez nator bat euskara susmopean dagoen horrekin. Ez dut ezer ere euskararen kontra. Eta PPk ere ez; pentsa, alderdi barruan jendeak euskara ikas dezan bultzatzen ari dira.

● **Baina zuk ez dakizu euskara, eta hemen txet bertan, udalbatzar aretoan, zinegotzi kargua hartu zenuenean, euskaraz esaten duten dena espainolera itzultzeko exijitu zenuen. Hori da hasiera...**

Ni Azpeitira ez naiz etorri euskara ikastera. Hori ez da niretzat lehentasuna. Eta ni udalbatzarrean banago, eta euskaraz ari badira, itzulpena nahi dut. Bestela, nola bozkatu behar dut?

● **Zertara etorri zara herrira? Ez zeunden hautes zerrendatan...**

“Niri hona etortzeko esan zidaten, eta ni Azpeitira ez naiz etorri euskara ikastera”

“San Inazioei eta oihartzun handiagoa eman behar diegu, baita nazional mailan ere”

Etortzeko esan zidatelako. Nahiz eta zerrendatan ez egon, lege berri batek hori ahalbidetzen du. Azpeitian aurreneko aldian zinegotzi postua lortu genuela, eta gutako batek lekua bete behar zuela iruditzen zitzaigun.

● **Besteetako inor zergatik ez da etorri?**

Ez zutelako nahi izan. Nik bai.

● **Eroso al zaude Azpeitian?**

Bai. Eta, gainera, gustatu egiten zait Azpeitiko jendea.

● **Herriko zerbait ezagutzen al duzu?**

Jendea, udal taldea...

● **Zenbateraino hartzen duzu parte Udalean?**

Oraingoz, batzorde denetan.

● **Azpeitia gutxi ezagututa, batzorde dene-tako kide zara, beraz...**

Bai. Baina batzuetan ezin izaten dut denera joan, bi batzordeetako bilerak ordu berean jartzen dizkidatelako.

● **Herrian ba al duzu zerbait gustukoa?**

Informazio dena jasotzen ari naiz orain. Gizarte gaiak dira gehien interesatzen zaizkidanak. Alderdi barruan gai horietan ibili izan naiz lanean.

● **Baina harremanik ba al duzu herritarrekin, Azpeitiko gizartearekin?**

Haien eskura nago, lehenengo unetik. Eta dagoeneko jendeak hotsegin dit.

● **Zinegotzi zara, eta Espainian senatari izan zaitezke orain. Azpeitia gutxiago eza-gutzeko bidea da hori.**

Beste konpromiso handi bat da, baina askatasuna eta, batez ere, bizitza defenditzeko lanean segitzeko prest nago, eta hau funtzionatzen hasteko gogoia daukat.



● Zer 'hau'?

Denon elkarbizitza errekuferatu behar dugu. Espainia ondo badoa, Azpeitia ondo joango da, lana ondo joango da, herritarak askoz gusturago egongo dira...

● Azpeitia ez al doa "ondo"?

Bai, baina zerbait gehiago egin badezak... Nik badakit Azpeitiko jendea oso parte-hartzailea dela, herrian festa asko daudela, ekimen asko, eta dena ondo bideratu behar da. Herri garrantzitsua da Azpeitia, San Inazioak ditu, eta horri denari oihartzun handiagoa eman behar diogu, baita nazional maila ere.

● 2003ko udal hauteskundeetan, Habearen botoak ez kontatuta, botoen %5,5 lortu zituen PPK. Kontatuz gero, aldiz, PPK ez zukeen zinegotzi posturik aterako, Habeak 2.027 boto zenbatu zituelako. Zilegitasunik ba al duzu?

Horiek ilegalizatuta daude eta kito.

● Zure ustez ilegalak al dira Habeakoak?

Horixe baietz! Indarkeria eta terrorismoa albo batera uzten ez dituzten bitartean, ez dira legalak.

● Habeakoek beren erara —denek bezala— herriaren alde lan egiten dute: kultur arloan, gizarte gaietan...

Horrek ez dit balio. Bizitza eta askatasuna dira lehenengo gauza. Eta denok hitz egiteko askatasun bera eta bizitzeko segurtasun bera dugunean, orduan bale.

● Habeakoak etortzen dira udaletxera lanera.

Bai, eta alkateak gehiegi uzten die. Ez dut bat egiten alkatearen jarrera horrekin, baina errespetatzen dut. Batzordeak irekiak dira, ados, baina zer gertatzen da plenoetan? Habeakoek ez dute puntu bakoitzeko beraien diskurtso luzea bota beharrik. Jendartean egon beharko lukete, eta beste edozeinek bezala galdera-erantzunetan parte hartu, nahiko balute. Baina hemen gehiegi uzten zaie.

● Eta gaizki iruditzen zaizu...

Oso gaizki! Eta, gainera, ez da legezkoa Habeakoek horrela parte hartzea!

● Zure ustez, Habeakoak ilegalak izateko probak badaude...

Bai. Gainera, epaileak esan du hori.

● Esango proba bat?

... Bueno, nik uste nuen aldizkari hau kultur arlokoa zela, eta hemen elkarriketa politikoa egiten ari zara.

● Bistan da ez duzula ezagutzen Uztartia Azpeitiko herri aldizkaria, hemen politikaz ere jarduten dugulako, eta, bestela, adibidez, galdetu udaletxeko zure bulegokideari, Manoli Urangari, hari ere elkarriketa politikoa egin izan diogulako. Bueno, ea zerbait gehiago ezagutzen duzun Azpeitiaz: zertan hobetu behar du?

Hirigintza aldetik uste dut nahikoa ondo bideratuta dagoela. Faltan botatzen dudana —eta hori esaten dit jendeak ere—, kultur azpiegiturak dira, ekitaldiak egiteko; oso sakabanatuta omen daude azpiegiturak. Antzokia-edo egin nahi omen dute zera, eh...

● ...Soreasun.

Bai, Soreasun edo, eta niri ondo iruditzen zait, eta esan diet ahal den dena egingo dudala dirua ekartzeko. PPK hauteskundeak orain berriro irabazten baditu, seguru nago Azpeitiak bitarteko asko lor ditzakeela kultur proiektuak aurrera eramateko, PPK esandakoa betetzen duelako.

● Hilabete daramazu Azpeitian karguan [otsailaren hasieran egin genuen elkarriketa]. Zerbait proposatu al duzu?

Ez. Behin Gizartekintzan-edo datuak »

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

HORMIGONES
LAZKANO
HORMIGONIAK

» eskatu nituen. Esan dut: gizarte gaiak interesatzen zaizkit gehien, Azpeitian ere familia asko arazoak pasatzen ariko direla uste dudalako: haieiako asko soldata aldetik, batzuk alargun geratu direlako, besteek arazo fisikoak dituztelako... Horien-gana iritsi nahi dut. Etorkinak lehenago enteratzen dira-eta zer laguntza dituzten gure bizilagunak baino! Eta hauek gaizki ari dira pasatzen.

● **Zuk uste jendeak ulertuko duela zure ekarpen nagusia gizarte gaietan izan daitekeela zu zeu PPkoa izanda?**

Zergatik ez? Pertsonenganako hurbila naiz eta hori politikara eraman nahi dut. Ni pertsona batengana gerturatzen naizenean, ez diot galdetzen zer ideologia duen, baizik eta zer behar duen. Eskuartean badut, ematen diot, eta bestela, lagundu. Pertsona denak igualak dira, nire ustez.

● **Eta ados al zaude PPren politika sozialarekin?**

Jakina baietz! Eta uste dut gauza asko ari garela egiten. Badirudi arlo soziala ezkerrena dela, eta hori ez da hala.

● **Julian Eizmendi, Azpeitiko alkatea, EAJ**

“ PPK hauteskundeak berriro irabazten baldin baditu, Azpeitiak bitarteko asko lor ditzake ”

eta EAren Udalbiltzako lehendakaria ere bada. Zer iruditzen?

Oso ondo. Pertsona atsegina da.

● **Ni karguaz ari naiz...**

Oraindik ez naiz oso ondo kokatzen Udalbiltzaren kontuan.

● **Baina erakunde legitimoa al da zure ustez?**

Ez dakit den edo ez. Euskal udalen erakundea da. Espainia mailan badago horrelako erakunde bat eta hauek... Nik ez dakit zergatik egin nahi dugun dena hemengoa, independentea, gure udalak, gure kultura... Denok irekitzen ari gara eta dena konpartitu beharra dago eta!

● **Bai, Espainiak ere konpartitzen du Euskal Herriko kultura...**

Horixe baietz! Kataluniakoa bezala, Galiziakoa bezala. Kultura desberdinek

aberasten gaituzte eta! Baina alderdi aber-tzaleak gero eta gehiago ari dira ixten. Ilogikoa da.

● **PP ez delakoan alderdi nazionalista... Berriro galdetuko dizut: legitimoa al da Udalbiltza? Udalbiltzako batzuk kartzelan daude...**

Nik diodana da Espainian bizi garela eta autonomia batetik ezin dela Espainiako Gobernuaren-eta kontra joan. Ilogikoa da. Zergatik izan nahi dugu hain protagonista? Zergatik nahi ditugu hautsi bide batzuk? Oso ondo bizi gara eta! Autonomia bakoitzaren errespetu dezagun, eta kito.

● **Eta euskal herritarren gehiengoak autodeterminazio eskubidea gauzatzearen alde balego, gauzatzea logikoa irudituko al litzazuke? Eta legitimoa?**

Ez logikoa eta ez legitimoa. Kontestu baten barruan baike, Espainiaren barruan. Eta Espainiako %5ak ezin ditu Espainia mailako gauzak erabaki. Hauteskunde batzuetan Espainiaren gehiengoak erabakiko balu halakori independentzia eman behar zaiola, orduan bai. Bestela, ez. Eta puntu. ●

UZTARRIAKO
BAZKIDE EGIN:
943 - 150358
izena + helbidea
+ kontu zenbakia
24 euro

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

PILDAIN
inmobiliaria
Elizkale, 22 • Tlf. 943-812167 • pildain@jet.es

Irudiekin, Iraurgi bailaren zerbitzura
KAITO TELEBISTA
Grabatutako bideoen kopiak
egiten dira
81 53 35

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK
Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Larrialdiak:
943 15 16 40
Ekain
ALBAITARI KLINIKA

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA
Tel.: 943 81 47 12

Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak
Etxeetarako
Zerbitzua Dugu
Tel.: 943 81 51 87
Loiolu Bide, 25 - AZPEITIA

AIZPURU
AUTOAK
PEUGEOT
Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59

Biele

DESS

design

dekorazioa eta atsedena bat eginda

ALTZARIAK SOFAK DEKORAZIOA SILOIAK ATSEDENA ALFONBRAK
MAHAIK SOMIERRAK KOLTZOIAK GREMIOEN KOORDINAKETA
OSAGIAK SUKALDEAK HORMA ARMAIRUAK DISEINUA
ALTZARIAK SOFAK DEKORAZIOA SILOIAK ATSEDENA ALFONBRAK
MAHAIK SOMIERRAK KOLTZOIAK GREMIOEN KOORDINAKETA
OSAGIAK SUKALDEAK HORMA ARMAIRUAK DISEINUA
ALTZARIAK SOFAK DEKORAZIOA SILOIAK ATSEDENA ALFONBRAK
MAHAIK SOMIERRAK KOLTZOIAK GREMIOEN KOORDINAKETA
OSAGIAK SUKALDEAK HORMA ARMAIRUAK DISEINUA

HARZUBIA HIRIBIDEA 51 AZPEITIA TEL./FAX 943 15 14 41

udal erabakiyek

Eguneko zentroaren eta etxez etxeko zerbitzuak kontratatzeko pleguak

Julian Eizmendi alkateak, otsailaren 19an eta udal dekretuz, eguneko zentroaren zerbitzua eta etxez etxeko laguntza zerbitzuak kontratatzeko pleguak onartu zituen. Baldintza-pleguak otsailaren 27an eman ziren jakitera Gipuzkoako Aldizkari ofizialean, eta orain jendaurrean daude, erakusgai. Bi zerbitzuen kontratuaren iraupena apirilaren 1ean hasi eta 2005eko abenduaren 31 artekoa izango da. Hala ere, bi urtez luzatzeko auke-

ra egongo da. Lehiaketetako aurrekontuak honakoak dira: eguneko zentroaren kasuan, 13,43 euro dira lan orduko; eta etxez etxeko zerbitzuan, aldiz, 15,77 euro lan orduko. Eta jarri beharreko bermea ere zehaztu da: eguneko zentroaren kasuan, behin-behinekoa 1.630 euro da, eta behin-betikoa 3.260 euro. Etxez etxeko zerbitzuan, behin-behinekoa 6.280 euro, eta behin-betikoa 12.560 euro. Bi zerbitzuak kontratatzeko kontuan hartu beharreko oinarriak, beraz, Udalak erabaki ditu. Baina, haien eskaintza irekitzeko data ez da zehazten dekretuan, esaten da, "kontratatzio organoak" erabakiko duela data.

Gorka Urbizu

gurien...

Berri Txarrak taldeko abeslaria

"Lehen diskoarekin ere etorri ginen Azpeitira"

Ihintza Agirretxe / Otsailean Berri Txarrak taldeak kontzertua eskaini zuen Azpeitian. Plaza bete egin zen, eta gustura zegoen Gorka Urbizu, taldeko abeslaria, kontzertua bukatu ondoren.

• Zer moduz joan da kontzertua?

Oso ondo; beti esaten digute hemen pasaren pasatzen dela jendea, eta gaur behintzat jende pixka bat gelditu da, eta gustura gaude.

• Lehenengo aldia al da hona zatotzena?

Lehen ere etorri ginen. Lehenengo diskoarekin etorri ginen, 1998 urte inguruan. Skala-riak-ekin jo genuen, eta jende gutxiago egon zen.

• Durangoko

azokan kaleratu zenuten

Libre diskoa. Nolako harrera izan du?

Oso ona, harrituta gaude. Ez da garai onena diskoak saltzeko, baina oso ondo ari gara saltzen.

• Zentsura dela-eta, arazo batzuk izan dituzue.

Zentsura etorri zaigu gainera; ez dut esango tokatuko zitzaila uste genuenik, baina ikusten genuen inguruan zer pasatzen ari zen beste euskal taldeekin.

• Azpeitian 300. kontzertua eskaini duzue; orain zenbat urte hasi zintzen kontzertuak eskaintzen?

Orain 10 urte hasi ginen. Gutxi dirudi 10 urtean 300 kontzertu, baina benetan asko dira.



Gaztetxea izan zena bota behar dute

Ihintza Agirretxe / Azken aldian Alde Zaharra berri-tzen ari dira. Eraikin zaharrak bota eta berriak egiten ari dira.

Oraingoan Erdi kale eta Eliz kale bitarteko pasabide ertzean dagoen eraikin zaharra botatzera doaz.

Azpeitian garai batean Gaztetxea zegoen eraikin horren behealdean. Hura itxi zutenetik behin baino gehiagotan ahalegindu dira herriko gazteak berriro gaztetxe bat izaten, eta baita lehengo irekitzen ere, baina alferrik (azken saiakera 2000ko udan izan zen). Hala ere, hura izan da, irekita edo itxita, herriko Gaztetxea. Orain, ordea, etxe berriak egitera doaz; edonoren bistan dagoen kartel batek horrela adierazte du. Baina ez da hau bota behar duten eraikin bakarra, kalearen goialdean ere beste etxe bat botatzera doazelako. Gaztetxe aurreko eraikina, berriz dena, berriztatzen ari dira. Izanak izan, orain arteko gazteek ez dute ahaztuko Gaztetxean izandako gorabeherak; pasatutako bakoitzean, nahiz eta etxea berriztatua egon, eraikin zaharra ikusten jarraituko dute zenbaitek. •

Zertan dabil beltzez jantzitako gizona gurean?

Uztarria / Azpeitian eta inguruetan azkenaldian goitik behera beltzez jantzitako gizon bat dabil jendeari atzetik segika. Beti gau partean, eta neskei jarraitzen die, Uztarriari esan diotenez. Haren janzkera susmagarria da: dena beltzez jantzita —arropa, kaputxa eta esku larru beltzak—. Dagoeneko neska bat baino gehiago ohartu dira, norbaitek jarraitu dielako gaez, nahiz eta gero inork ez duen erasorik-edo jaso. Azpeitian eta Azkoitian gertatu da. •

Azkenean San Martin Estrata izena jartzea erabaki da udaletxean

Miserikordi ondoko kale estuari, Hartzubia hiribidetik Foruen ibilbidera doanari, eta udalean jasotako alegazio bati kasu eginez, San Martin Estrata izena jartzea erabaki zen otsailaren 5eko udalbatzarrean. Aurreko udalbatzar batean Martin Donea kalea izena jartzea onartu zen, baina herritar batek San Martin Estrata izena ere onartua zegoela eta egokiagoa zela adieraziz alegazioa egin zuen. Udal ordezkariak kasu egin zioten herritarrek esandakoari.



San Martin Estrata kalea. / N.U.

“Antzerki obra bat ez da liburu baterako. Oholtza gainean ikustea da azken helburua”

Alaitz Olaizola
(idazlea eta antzezlea)

“Kontratua luzatzean, Realak argi eta garbi erakutsi dit nigan interes handia zuela”

Mikel Aranburu
(Realeko jokalaria)




Mikel Aranburu.

“Oso zentral ona izatera irits daiteke Mikel Labaka, Realerako balekoa erabat”

Juanma Lillo
(Murtzia Hiriko entrenatzaile ohia)

zer dago gaixki, zer sobran, zer faltan?



ERANTZUTEKO EPEA: Martxoak 22 (astelehena)

HELBIDEA: Uztarria, Julian Elorza Hiribidea 4, 1.a ezkerre; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)

AKATSA ADIERAZI (idatziz edo boligrafoz):

IZEN-ABIZENAK:

TELEFONO ZENBAKIA:

IRABAZLEARENTZAT SARIA: Martina Isasti dendako erosketa txartela

AURREKO ARGAZKIYE...



...ETA SOLUZIYUE



IRABAZLIE: Eli Unanue



Eli Unanue izan da 48. garailea. Kimu bat lora-dendako erosketa txartela irabazi du. Argazkian, Eli —txartela eta lore sorta eskuetan duela— eta Kimu bat dendako Josune ageri dira.

'HITZA'-KO GIZARTE ERAGILEAK

Lagun Onak Mendi Bazkuna, Ikasberri eta Zutoin eta Zutarri guraso elkarteak dira 'Hitza'-n oraingoz dauden gizarte eragileak, eta laster gehiago izatea nahi dute

Hitza Agirretxe

Azken hilabete honetan egunkari berri bat jaio da. *Hitza* da egunkariaren izena, eta Urola-Kostako etxe guztietan sartu da jada.

Egunkaria otsailaren 19an aurkeztu zen Zarautzen, eta hurrengo egunean, *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutela urtebete bete zen egunean, Azkoititik Oriora bitarteko etxeetara iritsi zen.

Proiektu hori aurrera eramatea hiru zutabe nagusik ahalbideratu dute: alde batetik, EKT Euskarazko Komunikazio Taldea dago; bestetik herri aldizkariak eta euskara elkarteak; eta, azkenik, hirugarren hanka deitzen dioten eta hain garrantzitsuak diren gizarte eragileak daude.

Azpeitian hasieratik lau gizarte eragile sartu dira proiektuan: Lagun Onak Mendi Bazkuna, Ikasberri Azpeitiko Ikastola, eta Zutoin (Urola Ikastola Azkoitia-Azpeitia BHI) eta Zutarri (Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai) guraso elkarteak.

"TRESNA EGOKIA". Maje Larañaga (Lagun Onak M.B), Josu Galarraga (Zutarri), Luxio Galarraga (Ikasberri) eta Agustin Lizarralde (Zutoin) gurean izan dira, eta proiektu berri honetan parte hartzera nolatan animatu diren galdetzean, ez du inork zalantzairik izan. "Euskarazko tresna egokia dela-eta, garai batean *Euskaldunon Egunkaria*, orain urte erdi bat *Berria* eta orain *Urola-Kostako Hitza* ere bultzatu behar genuela pentsatu genuen. Gainera, oraindik eta gehiago gure eskualdeari buruz informatuko gaituen euskaraz-

Nola hartu parte?

● **ENPRESA EREDUA.** *Urola-Kosta Hitza*-ren enpresa, Sozietate Mugatua da (S.L.).

● **BAZKIDEAK.** Hiru bazkide mota ditu: eskualdeko herri aldizkariaren euskara elkarteak (Zarauzko Txaparro, Azpeitiko Uztarría, Zumaiako Baleike, Zestoako Danbolinzulo eta Getariako Artzape; Azkoitiko Maxixatzen eta Orio-Aiako Karkara ez dira sartu), EKTko Bertako Hedabideak —beste hiru Hitzetan ere bazkide da—, eta Urola-Kostako gizarte eragileak. Euskara elkarteek enpresaren %45 dute, Bertakok %35 eta eragileek %20.

● **ZEIN DIRA GIZARTE ERAGILEAK?** Urola-Kostako 11 herrietan euskararen alde dauden enpresak, sindikatuak, ikastetxeak, taldeak, elkarteak, soziedadeak... dira gizarte eragileak, eta euskara elkarteek eta Bertakok proiektuan sartu nahi izan dituzte, haiek euskararen alde egin duten, egiten duten eta egingo dutenagatik. Azpeititik dagoeneko erreportaiaren ageri diren laurak sartu dira.

● **ZER EGIN PARTE HARTZEKO?**

● Dozena bat eragilek kultur elkartea sortu dute, eta elkarre horretako behin-behineko ordezkariak hartzen dute parte *Hitza*-ren Administrazio Kontseiluan.

● Kultur elkarre horretan sartzeko, behin, gutxienez 150 euroko partaidetza erosi behar du eragile bakoitzak. Nahi adina eros daitezke, *Hitza* gehiago laguntzearen.

● Telefono zenbakia: 607 33 46 65.

ko prentsa izanda", esan du Luxio Galarragak.

"Euskara eta euskal kultura suspertzera dator *Hitza*, eta gu ikastola bat garenez, gure bultzada eman beharrean aurkitu gara. Urola eskualde euskalduna da, baina euskara idatzia nahiko urria da, eta prentsa idatzia bultzatzea beharrezkoa iruditzen zitzai- gun", dio Josu Galarragak.

"Babesa"; guztiek aho batez erantzun dute beraiek egunkari berri honi zer eskaintzen dioten galdetzean. Lau gizarte eragileek jende ugari dute atzetik, eta proiektuak pertsona horien guztien babesa eta bultzada duela esan dute. Horretaz gain, behar dutenean laguntzeko prest ere azaldu dira. Beraz, hain garrantzitsuak diren laguntza eta babesa eskaintzen dituzte gehienbat.

Gaur egun oraindik lau eragile bakarrik daude proiektu honetan sartuta, baina laster kopuruak gora egitea espero dute, *Tolosaldeko Hitzan*-eta gertatu den bezala (Tolosaldean ia 80 gizarte eragile daude sartuta enpresan, eragileen kultur elkartearen bitartez).

"Euskararen alde egiteko aukera egokia da oraingo hau; ez da askotan izaten euskararen alde horrelako gauza garrantzitsua egiteko aukera, eta, horretaz gain, inguruko informazioa lortzeko dugun hutsunea bete- ko du", dio Maje Larrañagak.

"BIDELAGUNAK BEHAR". "Euskara indartzea guztion lana da, eta bidean aurrera jarraitzeko bidelagunak behar dira, eta guk aurrera egin nahi duenari eskua luzatzen diogu", gaineratu du Josu Galarragak. Luxio Galarragak uste du "tresna bera ezagutu" eta bakoitzak ikusiko duela "nola den beharrezkoa" egunkari berria: "Azpeitian tresna natural bihur daiteke, gaur egun *El Diario Vasco* den moduan, eta horrek euskarazko prentsa naturala bihurtuko du. Gainera, herriko taldeen ekitaldien berri emateko tresna egokia da *Hitza*, eta talde guztion beharra da hori".

"Horrelako komunikabide batean beharrezkoa da eragileen babesa, eta gizarte eragileren batek euskararen alde zerbait egin nahi badu, hemen du aukera", dio Agustin Lizarralde.

Oraindik pare bat aste baino ez daramatza *Urola-Kostako Hitza*-k kalean, eta espero da jendea eta taldeak produktua ezagutzen doazen heinean, herriko enpresak, sindikatuak, elkarteak, ikastetxeak... hurbiltzen hastea; hala ere, *Hitza*-k berak laster hasiko du bazkide berriak lortzeko kanpaina, eta orduan joko du eragileengana. ●



“ Nahiz eta Urola inguru euskalduna izan, eukarazko prentsak hemen ere bultzada handia behar du”

Josu Galarraga
(Zutarriko ordezkaria)

“ Ez dira aukera asko izaten hemen ere euskararen alde horrelako gauza garrantzitsuak egiteko”

Maje Larrañaga
(L. Onak M.B.ko lehendakaria)

“ ‘Hitza’, Azpeitian tresna naturala bihur daiteke, ‘DV’ den bezala, eta horrela euskal prentsa natural bihurtuko da”

Luxio Galarraga
(Ikasberriko ordezkaria)

“ Horrelako batek beharrezkoa du eragileen babesa. Talderen batek zerbait egin nahi badu, orain du aukera”

Agustin Lizarralde
(Zutoineko ordezkaria)



Otamendi
Bizi Denda

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49



ORKATZ KULTUR ELKARTEA

Erdi Kalea, 24



domus

GURE ZORIONTASUNAREN NEURRIA



Gure artean inork ez dizu galdetuko: “Hi, zoriontsu al haiz?”. Halako galdera konprometiturik ez diogu egiten elkarri, arriskua nabaria delako. Hori galdetuz gero, geuk ere erantzun egin behar-ko genioke ondoren bestearen galderari, eta gure gizartean gehienek lanak izango lituzkete “Ba bai, zoriontsua naiz!” erantzuteko.

Berriki irakurri dut Joxe Arregi fraide azpeitiarrari egin dioten elkarriketa. Kolonbiako lurretan ibili da bera, eta ikaratuta etorri da han ikusitako egoerarekin: 42 milioi biztanle dituen herrialdean %60 pobrezian bizi omen dira, 10 milioi eskaleak omen dira, eta auzunerik txiroenetako miseriak ikaratu egiten omen du bihotza. Hala ere, zerbait harrigarria kontatzen du Joxek: oraintsuegindako inkesta batean kolonbiarren %83k zoriontsu edo “dexente” zoriontsu direla esan omen dute.

Ze diferentzia, ezta? Pobreak zoriontsu eta aberatsok beti negarrez, beti kexaka, beti marmarrean eta gehienetan petral, arazo askorekin, konpondu behar askorekin, egun osoa zereginetan murgilduta.

Kolonbiako zoriontasunaren berri irakurrita berehala oroitu nintzen iaz elkarriketatu nuen Portugaleko kantari inprobisadore batekin. Armando Rodrigues da bera. Esaten zuen Iparraldean edo Hegoaldean ezberdin kantatzen dela. Hegoaldekoak fadozaleak direla, tristeagoak, baina Iparraldean miseria handia egon dela, aspalditik, pobreak direla, eta kantatu egiten dutela alaitzeko, goseak kantarazi egiten duela tristura hori alaitzeko, bestela tristuraz hilko liratekeelako. Kantatuz alaitzen duela pobreak bere bizitza tristea, eta horregatik Iparraldeko kantuak, pobreen kantuak, alaiagoak direla Hegoaldekoenak baino. Eta bukaeran esan zuen: “Tristura aberatsen lujoa baino ez da”.

Duela gutxi, Pensylvanian, Seligan doktoreak ikerketa sakon bat egin du milaka pertsonekin, zoriontasunari buruzko haien iritziak edo zergatiak jasoz, eta ondorio harrigarri batera iritsi da: osasunak ez omen dauka lotura handirik zorionarekin, aberastasunak ere oso harreman gutxi omen dauka, eta goapoa edo gorputz ederrekoa izateak ere, gizartean dakartzan abantailak alde batera utzita, ez omen dauka eragin handirik.

Mundu erdia oraindik bizikletan dabilelarik, eta egunean behin jatera iritsi ezinda, gu aberatsak gara gure autoekin, altzariekin, etxebizitzekin, garbigailu eta tresneria guztiekin; hozkailuak gainezka dauzkagu, baina barre gero eta gutxiago egiten dugu. Badakit inor ez dela pobre bere borondatez izaten, eta ahal

HILEKO GALDERA.

PPko kontzejal
bakar batek
jarriko ote ditu
Azpeitiko
zinegotzi
guztiak
erdaraz hitz
egiten?

duenak ihes egingo diola pobrezia-ri, baina guk lortu dugun aberastasunak prezio garestia ordainarazi digu.

Dauzkagun ondasunak disfrutatze-ko bizi beharrean, ondasun horiek erosteko baino ez gara bizi, azken batean. Lehen baten lanak mantentzen zuen hamar senideko familia; orain biren lana behar da haur bat edo bikoa mantentzeko. Lehen lagun artean elkar zirikatzten edo familian hitz egiten ematen zen denbora orain telebistari eskaintzen diogu oso-osorik. Gure etxeetan aski da komuneko apaingailu guztiak eta armairuko arropategiak ikustea kanpoko itxurari begira bizi garela jakiteko; baina okerragoa da hau: zoriona ere kanpotik prestatua ekarriko digutela uste dugu, oporrak, haziendako deklarazioak eta jakiak prestatuta ekartzen dizkiguten bezala.

Pobrea denak badaki ezer erosi gabe bizitza disfrutatzen; gutxi daukanak, oso gutxi behar du festa antolatze-ko. Asko daukanak, aldiz, gauza gehiago behar ditu asetuko bada, eta erosi gabe ez du zorionik eza- gutzen. Gutxi daukanak barre erraz egiten du; asko daukanak, aldiz, barre nekez egiten du.

Zoriona, berriz, gauza sinplea izan: lore bat (bide bazterrekoa, ez dendakoa), irribarre bat, ardo botila bat lagun artean, kantu polit bat. Hemen aurkiezineko gauzak, denak.



Uztarria

Uztarria eta 'Urola-Kostako Hitza' batera daude egoitza berrian

Uztarriaren datuak

Argitaratzailea: Uztarria
Kultur Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza Hiribidea
4 behe, eskubia, (Azpeitia).
Telefonoa eta faxa:
943 - 15 03 58
Posta elektronikoa:
uztarria@topagunea.com

Web orria:

www.uztarria.com

Posta kutxa: 227, Azpeitia
Inprimategia: Gertu
Tirada: 2.000 ale
Lege gordailua: SS-860/2000

aldizkari honen laguntzaileak



AZPEITIKO
UDALA



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO
JAURLARITZA
Kultura Saila

Uztarria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna



• **'UROLA-KOSTAKO HITZA'.** *Urola-Kostako Hitza*-k, bi egoitza dauka: bat Zarautzen, eta bestea Azpeitian. Geure herriko egoitza hori, Uztarriakoarekin batera du: Julian Elorza Hiribidea, 4 behe, eskubia helbidean. Uztarria lehen eraikin bereko lehen solairuan zegoen, eta hasiera-hasieran goi-goikoan.

• **UZTARRIAKOEK 'HITZA':** *Hitza*-k aste honetan bukatuko du banaketa masiboa, eta hurrengo astetik aurrera Uztarriako bazkideek (773) eta harpidedunek (1.150)

Hitza jasoko dute, izen-abizenik eman gabe, aldizkari honetako aurreko zenbakian genioen bezala. Pegatina izango dute postontzian, postariak jakin dezan non utzi egunkaria.

• **BESTEAK:** Uztarria aldizkaria jasotzen ez dutenek *Urola-Kostako Hitza* jaso nahi badute, hotsegin egin beharko dituzte 943 30 43 46 telefono zenbakira.

• **GILTZA EKARRI:** *Hitza* buzoiratzen da, egunero, eta, beraz, ekarri mesedez zuen karre-rako giltza Azpeitiko egoitzara.

albiste txikiyek

Azken liburuak salgai segitzen du

Azpeitiko Efemerideak liburu oraindik ere salgai dago, bai Uztarriaren egoitzan eta baita ondorengo denda hauetan ere: Iratzar, Ekliptse, Belaetxe eta Martinez. Uztarriako bazkideek 6 eurotan eros dezakete, eta gainontzekoek 12 eurotan. Martxa onean ari da saltzen Imanol Eliasek egin eta Uztarriak argitaratutako liburuak.

Uztarria 'Asteon'-en ez

Topagunea eta herri aldizkari gutxi batzuk *Asteon* euskarazko telebista aldizkaria argitaratzen hasi berri dira. Asterokoa da. Uztarria Kultur Koordinadorak proiektu horretan ez sartzea erabaki du, beste lehentasun batzuk dituelako —Uztarriako komunikabideak eta *Urola-Kostako Hitza*—, "gure ustez askoz ere garrantzitsuagoak, herri informazioari eta gure helburuei lotuak".

773 bazkide gara dagoeneko; mertzi denel

EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAN

Urtean 24 euro (aldizkaria, liburuak, 'Literatuzta') / Bestela egin harpidedun (aldizkaria soilik; kontuarena ez beste guztia bete)

IZEN-ABIZENAK:

HELBIDEA:

HERRIA:

KODE POSTALA:

TELEFONOA(K):

POSTA ELEKTRONIKOA:

KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA (20 digitoak):

Julian Elorza Hiribidea, 4, 1.a ezkerre • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

Martxoaren 22an beteko dira 20 urte Kurro eta Pelitxo azpeitiarrak Pasaian hil zituztenetik, beste bi lagunekin batera; 113 tiro zulo zituzten laurak. Auziak oraindik, ordea, argitu gabe segitzen du

HOGEI URTE AHANZTURAREN AURKA BORROKAN

Pako Aristi



Atzera begira jar gaitezen. 1984ko urtea ageri zaigu data seinatu baten modura. Duela hogeitazazpi urte Azpeitiaren historian izan den gertaerarik ikaragarrienetako bat eza-gutu genuen, bertako bi seme balaz josita herrira ekarri zituztenean. Hogeitazazpi urte asko dira, ordea, hura bizi izan genuenoi gutxi iruditu arren. Gaur egun azpeitiarren erdiak, gazte jendeak alegia, beharbada ez du jakingo Pasaian gertatua; entzungo zuen zer-bait, edo ikusiko zuen Pasaia-ko sarraskia-
ren ez dakit zenbagarren urtemuga dela-eta antolaturiko kontzerturen bat, baina gertaeraren zehaztasunak faltako zaizkio. Izan ere, zaharragoak garenok hitz egiten al du-gu gazteekin? Komunikazioaren aroan gauzak kontatzeko joera gero eta urriagoa dela iruditzen zait. Horretara gatoz ondorengo orriotan. Gertaera izugarri baten berri ematera. Hilketak anker bat kontatzera. Demokraziaren aroan, gauaren ilunean, in-punitate osoarekin dozenaka poliziek lau euskaldun armarik gabeak nola fusilatu zituzten agertzen duen kronika krudela kontatzera. Krudela izanagatik ere, ezinbestez jakin beharrekoa dena gure herriaren historia ondo ezagutu dezagun.

OTSAILAK 23. Gehienetan istorio baten hasiera ez da aurkitzen gertatu zen une har-

tan, lehenago baizik. Gertaerak aurrez emandako beste pauso batzuen ondorio izaten dira maiz, eta lotura horiek ulertzeak gertaeraren funtsa ulertzea errazten du.

1984ko otsailaren 23a hauteskunde garaia zen Euskal Herrian. EAJ zegoen hemen agintean, Carlos Garaikoetxea lehen-dakari zelarik. Madrilen Felipe Gonzalezen PSOEek agintzen zuen. GAL, polizia eta mertzenarioek osatutako taldea, estatu terrorismoa egiten zuena, epaiketa batzuetan frogatu denez PSOEn baitan eta haren babesarekin sortutakoa, hasia zen Iparraldean euskal militanteak bahitzen, torturatzeko eta erailtzeko.

ETA militarrek politikorik hiltzen ez zuten garaian, Komando Autonomoek Enrique Casas PSOeko senadorea eta alderdiko Antolakuntza idazkaria hil zuten Donostia-ko bere etxean. Autonomoen iritziz, Casas zen GAL taldearen sortzaile edo ideia eman zuenetako bat; Casas eta Txiki Benegas ziren errepresioaren areagotzearen giltzarri, eta Madrilen ez zen erabakirik hartzen haien oniritzik gabe. Ekintza horrekin mezu bat bidali nahi izan zioten Felipe Gonzalez eta PSOeri.

Casasen heriotzak, ordea, autonomoen aurkako jarrera —lehen baino are gehiago— zabaldu zuen gizartean. Herri Batasunak ere kondenatu egin zuen ekintza, kontraesan gogor bat erakutsiz: euskal militanteak hiltzen zituen GAL taldearen sortzaile-etako baten alde agertzea. Greba orokorre-

ra deitu zuen Herri Batasunak beste alderdi guztiekin batera, eta garbi geratu zen ETak ez zuela begi onez ikusten bere jerarkiaren mende ez zegoen borroka armaturik.

Madrileko gobernuak Euskal Herrian zeukan piramidearen gailurra jo zuten autonomoek; euren ekintzarik sonatuena, indartsuena izan zen, hildako pertsonaren maila politikoa kontuan hartuta. Baina ekintza hura izan zen autonomoen indarrak ahulduko zituena, haien bakardadea gero eta garbiago erakutsiko zuena, ezker abertzaleak babesik gabe utzi zituelako. Eta bestalde, Madrileko gobernuak ekintza hura garbitu nahi zuen lehenbailehen, bere indarra erakusteko. Hurrengo asteetan poliziaren eginbeharreko lanen zerrendan lehen tokia hartu zuen Casas hiltzaileak aurkitzea.

MARTXOAK 18. Rosa Jimeno oriotarra da. Egun horretan Donostian zen. Autoa aparkatzen ari zela bi gizon ezko hurbildu zitzaizkion, normal jantzita, baina poliziak ziren, eta Polizia Nazionalaren Amarako egoitzara eraman zuten. Atetik sartu eta aurreneko gauza hormaren kontra bota zuten. Hortik aurrera torturak etengabeak, amai-gabeak eta basatiak izan ziren: bainera egin zioten, poltsa jarri, elektrodoak, zartakoak telefono listinarekin... jipoitu egiten zuten, gero arnasa bueltatzeko denbora eman eta berriro egurra ematen zioten. Hauts zuri batzuk eman zizkieten urarekin nahastuta, drogak edo. Lau egun pasatu zituen han »

'Kurro'



● **DIONISIO AIZPURU.** Azpeitian jaio zen, 1963an. Hogei urte zituela errefuxiatu zen Ipar Euskal Herrian. Azkoitiko Lanbide Institutuko ikaslea zela hasi zen protestetan parte hartzen.

'Pelitxo'



● **PEDRO MARI ISART.** Azpeitian jaio zen, 1961ean. GAIko militantea (Gazte Abertzale Iraultzaileak) zen, eta ondoren sartu zen Komando Autonomo Antikapalistetan (KAA).

'Txapas'



● **RAFAEL DELAS.** Iruñearra, 1957an jaio zen. 1983an alde egin zuen Ipar Euskal Herrira. Euskaldun berria. Ingurukoek diotenez, ideologiaz anarkista zen Txapas.

'Pelu'



● **JOXE MARI IZURRA.** 1981ean Iruñen jaio zen. 1981ean Iparraldean errefuxiatu zen. Hasiarlan ETako militantea izan zen eta ondoren KAArekin egingo zuen bat.



Kurro eta Pelitxoren gorpuk Azpeitiko Udaletxe azpian eduki zituzten. / JOXEMARI 'URRUSTIL'



Pelitxo, bere txakurrekin.



Azpeitiar ugari pasatu ziren Kurroren eta Pelitxoren gorpuk ikustera. / JOXEMARI 'URRUSTIL'



Kurro, sokamutur zalea zen.



Sahatsakoak dantza egiten gorpuen aurrean; dantzariak izanak ziren Kurro eta Pelitxo. / J.



Elkarren ondoan ehortzi zituzten, hilerrian.



Pelitxoren etxera.



Kurroren etxera bidean.

Hamasei urteren ondoren, kasua berriro zabalik

P. Aresti • Pasaia kasua, judizialki, itxita geratu zen 1987an, Calvo Rojas epaileak bertsio ofiziala berretsi ondoren. Hala ere, berriki ezusteak gertatu dira kasu honen historian.

2000. urtean Santiago Gonzalez abokatu, hildakoen sendiek hala eskatuta, kasua aztertzen hasi zen. Sumarioaren kopia osoa lortu zuen, eta bi dokumentu garrantzitsu falta zirela konturatu zen: bata artxibatze autoa zen, alegia, dokumentu hori gabe kasua artxibatu gabe zegoen; eta bestea Joseba Merinoren deklarazioa, Alcala espetxean hartu ziotena lekuko zuzen gisa. Bi dokumentu horiek ez ziren inon agertzen; beraz, abokatuak sumarioa berriro irekitzea lortu zuen. Leiho bat ireki zitzaion itxaropenari. Justizia egitea zaila izango da, hilketa haren errudunak espetxean ikustea zaila izango da, baina gutxienez benetako bertsioa zabaltzeko eta epai-

tegietako paper ofizialetan jasotzeko aukera badago.

2001ean Joseba Merinori deklarazioa hartu zitzaion berriro Pasaian gertatutakolari buruz. Honelako prozesuetan garrantzitsua izan ohi da, epaitegietako borrokaren ondoan, kalean ere, herri mailan mugimenduak egotea justizia eske. Zentzu honetan Azpeitiko autonomoen senideen eta asanblea herrikoiairen lana miresgarria izan da. Berari esker, berak eskatuta, 2001ean Azpeitiko Udalak akusazio partikular gisa aurkeztea erabaki zuen, eta hori aurrera ateratzeko abokatuak jartzea.

Urte berean Rosa Jimenok ere bere deklarazioa egin zuen epaitegian, berekin egindako basakeria guztiak kontatuz eta Pasaia operazioaren ilegaltasuna agerian utziz.

Argazkien bidezko informea egin zuten poliziek ere deklaratu zuten. Baina izan

zen beste gertaera garrantzitsu bat ere: hildakoen autopsia egin zuen forentseak deklaratu zuen, eta haren aitortpenak eta zehaztasunak bat zetozen, erabat, Merinok egin zituen zehaztasun guztiekin, horrela indarra emanaz Merinoren hitzei.

Froga horien aurrean Pasaian parte hartu zuten polizien identifikazioa eskatu zuen fiskalak. Gaur egun, hori da epaitegietan dagoen borrokarik latzena: batetik enboskadan izan ziren polizien identifikazioa eskuratzea, eta bestetik komisario-buruaren deklarazioa lortzea.

2002an Donostiako Komisariak lau polizia bidali zituen epaitegira deklaratzera, baina frustrantea izan zen haien agerpena, lehen lerroan ez zirela egon aitortu baitzuten, atzean baizik, aurrekoak babesten eta jendea hurbildu ez zedin zaintzen. Geroztik eztabaida gogorra dago Poliziaren Zuzendaritza Nagusiarekin, honek ez dituelako tiro egin zuten poliziak identifikatu nahi. Gaur egun, bere horretan dago auzia, eta borroka bi alorrekoa da: juridikoa eta politikoa. Egia jakinarazi nahi da, eta errudunak identifikatu eta epaitegietara eraman.

► Rosak, ez zekiela gaua ala eguna zen; halakoxea zen mina, hiltzea ere nahiago zuela.

Gero tortura psikologikoa etorri zen. Iloba txikia ikastolan hasi berria zuen; esaten zioten egunen batean posible zela autoren batek iloba azpian harrapatzea. Okerrena hau zen: inork ez zekiela Rosa poliziaren esku zegoenik. Norbait atxilotzen dutenean esan egiten dute, eta kanpoan jendea mugitzen hasten da, abokatuak, senideak, lagunak, eta kanpoko presio horrek zertxobait behintzat arindu dezake barrukoaren samina. Baina Rosa bahitu egin zuten, berarekin nahi zutena egin eta berarengandik nahi zutena lortzeko.

Hasteko, pistola kopetan jarri eta etxera deitarazi zioten, aitzakiaren bat asmatuz egun batzuetan Donostian geratu behar zuela esateko. Hurrena lanera deitu zuen, Orioko Udaletxera, haiek ere lasaitzeko. Rosa fisikoki eta psikikoki puskatuta zegoen, eta berriro pistola begien aurrean jarri zioten: orain Iparraldera deitu behar zuen, komandokideekin hitzordua jartzeko. Rosak ahal zuen neurrian aguantatu zuen, baina bazekien basapiztia haiek gai zirela tiroa eman eta bazter batean botata uzteko. Gainera, uste edo itxaropen batek gidatuta egin zuen hitzordua: bere lagunak bizirik atxilotuko zituzten itxaropena zeukan. Iparraldera deitu zuen, alde batean telefonoa, bestean pistola. Egoera trankil zegoela eta lasai etortzeko esan zien lagunei. Rosari eragin zioten mina, eta gertaeren ondoren bizitza

20. URTEURRENEAN

- **MARTXOAK 23. Hitzaldia.**
20:00. Gaia: *Desarrollismo txiki-tzaileak Euskal Herrian*. Hizlaria, Mikel Enparantza. Sindikatuan.
- **MARTXOAK 25. Hitzaldia.**
20:00. Gaia: *Rol maskulinoen inguruan*. Hizlaria, Ibi. Sindikatuan.
- **MARTXOAK 26. Hitzaldia.**
20:00. Gaia: *Guatemalan nekazal eremuen okupazioa*. Bideoa ere emango da. Sindikatu Zaharrean.
- **MARTXOAK 27.**
12:30. Poteoa. Trikitilari eta bertsolariekin.
14:00. Bazkaria. Baba-jana. Azoka plazan.
18:00. Musika. Elektrotuna taldea. Kalean.
19:00. Manifestazioa. Plazatik.
22:00. Kontzertua. Hurto (Lakabe), More (Lesaka), Patadazo (Azpeitia).

guztirako barruan geratu zaion samina ezingo ditugu inoiz imajinatu ere egin.

MARTXOAK 22. Iluntzeko hamarretarako egin zuen Rosak hitzordua komandoko

lagunekin, Pasaia badian dagoen leku batean. Aurreko orduetan sekulako polizia pila sumatu zuen komisarian, armak hartzen, txalekoak janzten, joan-etorrian. Rosaren kezka bakarra zen lagunei gertatuko zitzaiena, ea zer egin behar zieten galdezka ibili zen poliziei, bizirik uzteko eskatuz. Poliziek erantzun zioten atxilotu baino ez zituztela egingo, lasai egoteko.

Dena batu zen gau hartan komandoaren aurka. Osagai guztiak kalterako zituzten, eurak asko jakin gabe: Madrileko gobernuan zegoen alderdia mendeku gosez zegoen; poliziak libre zeukan nahi zuena egitea, jakinik egiten zutena eginda ere ez zela ikerketarik egongo, ez epaiketarik, ez zutela espetxean amaituko, aldiz, dominak jaso zitezutela; komandokoen konfiantzako kontaktua ere poliziaren esku zegoen; eta azkenik, komando autonomoek ez zeukaten apoio sozial handirik eta ez alderdi indartsurik atzean, adibidez greba orokorra antolatu eta gizartean istilu larriak eragin zitzakeenik. Egoera hartan, autonomoaren bizia merke zegoen, ia doan, esaterako.

Lapurdiko porturen batetik atera eta iluntzeko hamarretan iritsi zen zodiaca esandako lekura. Bost gizon zetozen bertan: Rafael Delas Txapas ezizenekoa, Jose Maria Izura Pelu, Dionisio Aizpuru Kurro, Pedro Mari Isart Pelitxo eta Joseba Merino. Txapas eta Pelu Iruñekoak ziren, Kurro eta Pelitxo azpeitiarrak, eta Joseba Merino donostiarra. Poltsa batean armak zekartzaten, baina bat ere ez soinean.



Liburua egin dute

• **LIBURUA:** 113.

Pasaiake sarraskiaren kronika.

• **ARGITALETXEA:**

Pasaiake sarraskia argitu.

• **EGILEAK:** Pasaiake sarraskia argitu.

• **GENEROA:** Kronika.


• **ORRIALDEAK:** 120.

• **HIZKUNTZA:** Euskaraz. Gaztelaniara itzuli egin dute.


• **SALNEURRIA:** 10 euro.

• **AURKEZPENA:**


Martxoaren 20an (larunbata), Pasaian, gertaera lekuan.



Pasaiake badiak, gertaerako lekua.



Rosa, lagunak erail zituzten lekua adierazten.



Erabat txikituta gelditu zen KAako kideak zihoazen zodiaca.



Azkoitiko Udaletxean pankarta jarri zuten eraildakoen lagunek.

Lekua itsasertzeko zulo bat da, haitz labainkorrak dauzkana, malkartsua. Poliziek goitik behera ikusten zituzten autonomoak, eta hauek ez zuten defenditzeko aukerarik izan. *Ongietorria* bikain prestatua zeukaten: inguru guztian poliziak non-nahi, fokoak prest, urpekariak ere bai, eta esandako tokian Rosa Jimeno zeukaten, soka batekin hanketatik lotuta.

Iritsi zirenean Rosak linterna bat piztu zuen hiru aldiz, hori baitzen seinalea. Hori egin ez balu bertan tirokatuko zuten neska. Iritsi ziren. Lehenengo Pelitxo azpeitiarra jaitsi zen, Kurro atzetik, eta Merino hurrena. Honek txakur bat zeraman lantxan, eta hura hartzera makurtu zenean hasi zen guztia. *"Alto policia"* entzun zuten. Tiro bakar bat ondoren, eta berehala sekulako tiro zaparrada. Fokoak piztu zituzten. Ordurako Rosari tira egin zioten sokatik eta polizia batek zaintzen zuen. Rosak aitortu du iritsiera une hartan saiatu zela lagunak abisatzeko, baina ezin izan zuela, poliziaz inguratutik egon baitzen uneoro.

Lehen tiroketa horretan Pelitxo eta Pelu hil ziren. Bizirik atera zituzten Txapas, Kurro eta Merino. Eskuak buru atzean ipiniarazita, identifikatu egin zituzten. Merinori egozten zioten Casasen aurkako atentatuan parte hartu izana, eta hura bazterrera eramane zuten. Orduan hiru polizia aurreratu zi-

ren Txapas eta Kurroengana, bi metraileterekin eta bat eskopetarekin. "Orain hil egingo zaituztegu" oihukatu eta metro bat baino gutxiagoko distantziaz tiro egin zieten eta bertan hil. Lau hildakoen gorpuetan 113 bala zulo aurkitu zituen forentseak. Autonomoek ez zuten tiro bakar bat bota. Berriki polizia batek deklaratu du gau hartan ehun polizia baino gehiago zegoela Pasaiake badiak zaintzen komandoaren zain.

Ez zitzaion ezertxo ere kostatuko denak bizirik atxilotzea, tiro bakar bat bota gabe gainera. Une hartan, hara hurbildu zen pasaitar batek ikusi zuen agente bat poliziaburu batengana hurbiltzen, esanez: "Nagusi, agindutako lana bete dugu!". Agindutako lan hori zein zen asmatzea ez da zaila: denak garbitu, bat izan ezik. Bat hori bizirik behar zuten prentsaren aurrean Casasen hiltzaile bezala agertuz operazioaren arrakasta demostratzeko, eta bestalde, Merino izanik klandestinitatera pasatu zen azken kidea, informazioa atera nahi ziotelako autonomoek Hegoaldean zeukaten azpiegitura legalari buruz. Rosak hurrengo egunean ere ez zekien lagunak hilak zirenik. Haietaz galdetu eta erantzun zioten: "Hortxe daude, alboko ziegan, gero ikusiko dituzu". Handik egun batzuetara, epailearen aurrean deklaratzeko ari zela, jakin zuen lagunak hilak zirela.

MARTXOAK 23. Irratiak laster hasi ziren gaueko albistegietan Pasaiake sarraskiaren berri ematen. Irratian entzun zuen Kurroren amak albisteak; han entzun zuen bere semearen izena hildakoen zerrendan. Sinetsi nahi ez eta ohera joan zen, eta goizean goiz jaiki, ea albistegiek zoritxarra konfirmatzen zuten ala ez. Bihozkadarik txarrena baieztatu zioten.

Gertaerak oihartzun handia izan zuen Euskal Herrian. Bertsio ofizialak zioen *"Alto policia"* esan zutela eta autonomoak tiroka hasi zirela. Beraz, Julen Elgorriaga gobernadore zibilak esan zuen bezala, enfrontamendua "saihestu ezinekoa" izan zen. Baina leku askotatik entzunarazi ziren bertsio ofiziala zalantzan jartzen zuten iritziak.

Madrileko egunkari batzuek garai hartan ez zuten gaur egun Euskal Herriko gauza guztiei buruz duten kontrako jarrera itxia, eta *El País*-ek, adibidez, aipatu zuen Pasaian fusilatu egin zituztela komandakideak, atxilotu ordez. Carlos Garaikoetxea lehendakariak adierazi zuen nahita hil zituztelako zantzuak zeudela, eta ikerketa zabaltzeko agindu zion Barne sailburuari; martxan jarri zen ikerketa eta emaitzarik inoiz jakin ez duguna. Euskadiko Ezkerreko buruzagi Juan Mari Bandresen azalpenak eskatu zizkion Barne ministroa zen Barrio-nuevori. Hego Euskal Herriko gotzainek »

Rosa Jimeno

Komando Autonomo Antikapalistetako kide ohia

“Kondenatu ez dituzte egingo,
baina behintzat jendeak jakitea
beste bertsio bat badagoela”



Pasaian gertatutakoaren 20. urteurrena dela eta, liburua argitaratuko dute laster. Rosa Merinori elkarrizketa egin diote, eta hango pasarteak dira ondorengoak. Poliziak bahituta eta torturatuta eduki zuen orduan Merino, honek esan zezan noiz iritsiko ziren lagunak Pasaia.

● Gogoratzen al duzu zein egunetan izan zen atxiloten eguna?

Ni detenitu ninduten martxoaren 18an. Nahiz eta sumarioan beti 19an jarri, martxoaren 18an izan zen, arratsaldean. Hemen Donostian kotxe bat tokiz aldatzera joan ginen, aldatu nuen eta aparkatutakoan

eta hori bi tipo etorri zitzaizkidan esanez poliziak zirela, plaka batzuk erakutsi zizkidan eta eurei laguntzeko eskatu. Kotxetik atera eta komisariara eraman ninduten, eta hasieratik ezer esan gabe, ostiako bat eman zidaten, eta paretan kontra jarri. Hasi ziren segituan galderak egiten, komandoa non neukan, zita non neukan, nik ez neukala inongo zitarik (...). Lehendabizi etxera deituarazi zidaten esateko non nengoen, Donostian, edo Orion edo non, eta esateko lagun bat neukala Donostian haurdun, gaizki zegoela eta bera zaintzen geratuko nintzela (...).

geratu ziren bihotz onez edo hipokresiaz betetako kaxoietan.

Joseba Merino eta Rosa Jimeno espetxeratuak izan ziren. Rosak lau urte eta erdi

● Orduan zure atxiloketa ilegala izan zen, inori ez zioten esan atxiloturik zinela?

Ez, inori ez. Garai hartan [Orion] udaletxean lan egiten nuen, hara ere deituarazi zidaten esanez lagun batekin nengoela eta ez nintzela joango eta hau eta bestea. Nire etxean, nola nik deitu nuen, ba sinistu egin zuten, nahiz eta nire gurasoei arraroa iruditu. Hala *de repente* haurdunaren kontu hura, pixkat moskeatu egin ziren, baina hainbeste ere ez (...).

● Egun hori Martxoak 22 izan zen?

Bai, 22a bai. Martxoaren 22an, nahiko pasada eman eta gero joan ginen, komisarian nengoela kriston mugimendua ikusten nuen polizien artean, armak hartzen... Ikarratu egin nintzen. Esan nien poliziari atxilotu egin behar bazituzten ea zergatik hainbeste mugimendu. “*Eso es para precaución, pero no te preocupes que vamos a detenerles a todos*” (...).

● Zein espetxeetara eraman zintuzten?

Pasaia, eta gero, Madrilgo bidean ez ninduten gehiago ikutu, gainera oso sinpatiko zeuden, beraiek esaten zuten: “*Te vamos a llevar de excursión a Madrid, no te quejaras*”. Lehendabizi Pasaia eta gero Donostia eraman ninduten, eta hurrengo egunean Madrilera. Madrilera eraman ninduten eta ez ninduten sartu kalabozora, sala handi batera eraman ninduten, argazki pilo bat zegoen, ETAko jendearenak edo. Han, espetxera eraman aurretik denbora guztian polizi batekin egon nintzen. Irrati bat zeukaten jarrita albisteak emateko. Orduña irratia kentzen zuten.

● Zein espetxeetan egon zara?

Barruan lehendabizi Yaseriasen egon nintzen, eta gero Carabanchelen. Espetxean pasatu ditut 4 urte eta 4 hilabete gutxi gora-behera.

● Orain kasua ireki dutela, nola ikusten duzu, itxaropenik ba al duzu?

Niri esan zidatenean kasua berriz irekitzen zela eta ea zer iruditzen zitzaidan, nik deklaratzeko eta hori, pozarekin hartu nuen. Iruditzen zait kondenatu ez dituztela egingo, hori konbentzitutako nago. Baina behintzat jendeak jakitea beste bertsio bat badagoela eta gauzak ez zirela beraiek kontatutako moduan gertatu. Ilusio horrekin aurrera.

► idazki bat plazaratu zuten bertsio ofiziala zalantzan jarritz. Bat-batean, hil ondoren, autonomoak ez zeuden hain bakarrik. Baina salaketak isiltzen joan ziren eta ahaztuta

egin zituen barruan, eta Merinok hamazazpi urte eta erdi. Bi pertsona horien inguruan zabaldu izan dira esamesak eta akusazioak, eurak poliziarekin bat eginda ote zeu-



“Informazio interesgarria eduki nezakeelako izan zen ni Pasaian ez fusilatzearen arrazoietakoa bat”

Iparraldetik Hegoaldera etorritakoen artean bizirik gelditu zen bakarra da Joseba Merino. Hona hemen bere bizipenak, liburuan daudenak (argazkian, erdiko da).

● Joseba, nola egin zenuten Pasaiaiko hitzordua?

Nik muga, beste egun batean eta beste leku batetik pasatzeko asmoa nuen, baina Kurro esan zidan, egun batzuk lehenago, ea beraiekin pasatuko nintzen eta horrela,

nik data aldatu eta beraiekin pasatzea pentsatu nuen. Pare bat egun lehenago Rosarekin telefonoz hitz egin genuen, eta muga pasatzeko lehen ahaleaginean zer-bait gertatu zen gendarmeeekin, eta ezin izan genuen egun horretan igaro, eta azkenean hitzordua 1984ko martxoaren 22ra pasatzea erabaki genuen.

● Egun horretako zer gogoratzen duzu?

Pasaiaiko badiara iritsi ginen eta Rosa,

geratu ginen lekuan zegoela ikusi genuen, aurreko aldietan geratu ginen leku berberan alegia; iritsi ginen eta zodiacaren branka harkaitzen kontra jarri nuen eta Rosari soka bat bota genion. Lehenengo, atzeal-detik, Pelitxo lurreratu zen eta Kurro aurretik, gero, ni lurreratzekoa nintzen eta Kurrori esan nionean txakurra hartzeko, beltza, hau ere gurekin baitzetoarren, “Geldi, Polizia” entzun genuen eta tiroka hasi ziren. Poliziaren gelditzeko deia darra eta tiroka hasia dena bat izan zen.

● Zer gertatu zen atxiloteta ondoren, tratu txarrak edo torturak egon ziren?

Tratu txarrak eta torturak autoan bertan hasi ziren. Txakurrek interes handia zeukaten Eibarren egon zitezkeen pisuei buruz. Nik, momentu horretan ez nekien baina egun horretan bertan Eibarren istiluak izan ziren nire bi kide eta txakurradaren artean eta ihes egitea lortu zuten. Txakurrek bazekiten, ni, hilabete bat lehenagora arte legala nintzela eta pisuei buruzko informazioa eduki nezakeela. Egia esan, hau izan zen ni ez fusilatzearen arrazoietakoa bat, beste batzuen artean; hau da, informazio interesgarria eduki nezakeela ihes egitea lortu zuten kide horiei buruz eta gainera, jakintzat ematen zuten Eibarren ezkutatu zirela edo nik jakin nezakeen beste etxeren batean (...). Ni ez fusilatzearen beste arrazoi bat ere bazegoen. Hilabete bat lehenago, otsailaren 23an guk Enrike Casasen kontrako ekintza burutu genuen. Hau gerra zikinaren bultzatzaile nagusienetako bat zen, gero, denborak arrazoi eman digun bezala (...).

● Zenbat urte egin dituzu kartzelan?

17 urte, 6 hilabete, 5 egun eta 14 ordu.

● Irteera eta gero, Pasaiaiko kasuaren irekiera nola bizi duzu?

Irteera espero bezalakoa izan da, ez dut egoera politikotik ezer espero. Egoera den bezalakoa da eta benetan txarra dela esango nuke. Kasuari buruz, saiatu behar dugu, nahiz eta bakarrik inkordiatzeko izan, eta harritu nau kasua irekitzeak, ze nik pentsatzen nuen edozein aitzakia erabiliko zutela hori gerta ez zedin. Baina ez dut espero kalamitate hauetako baten batek espetxean bukatzea.

den adieraziz. Bi pertsona horiek asko sufritu dute, baina bazuten lasaitasun izpi bat barruan: zuzen jokatu zuten, inor saldu gabe, ezin izan zuten ezer egin lagunen bizia

salbatzeko. Espetxean eman duten denborarekin ikusi da ez zirela poliziaren satorrak, baina batez ere hasiera-hasieratik haiengan sinestu zuen jendearen laguntzagatik

atera dira aurrera euren kalbario latzean. Merinok esana da: “Hein handi batean, neurri egin zidan minik handiena bizirik ateratzeko, Poliziak bere alde erabili ninduelako”. ●

datue

10

urte beteko ditu Azpeitia-Azkoitia maratoi-erdiak martxoaren 27an. Aurreneko maratoi-erdian, William Musyoki keniarra eta Maria Luisa Muñoz espainiarra izan ziren irabazleak.

dato historikue

18

urte dira Jotakie taldeak bere lehen LPa salgai jarri zuela. Hain zuzen, 1986ko martxoaren 24an plazaratu zuen.

esaldiye

“Jende arrunta hasi da euskal antzerkiaz hitz egiten”

Joxean Muñoz
(idazlea)

esaerie

“Otiak martxoan lore, ezta faltako eri eta dolore”

liburutik ttak

“Orain dela zenbait urte, guztion gogoan ditugun arrazoi kultural eta politikoengatik, gaztelaniaz euskaraz baino okerrago mintzatzeak euskaldun asko eta asko lotsa-gorritu egiten zituen. Gaur zoriez bestelakoa da egoera. Are gehiago, populazioaren zenbait sektoretan erabat aldatu da sentimentu hura. Euskaldunberriek, erdiek baino gehiagok, adibidez, euskaraz ez egitearen lotsa izandute”.

‘Euskararen borroka’. Eusko Jaurilaritzako argitalpen saila argialetxea. 1983. urtea.

kontue da... Imanol Elias Odriozola (idazlea)



ELKARREN ARTEKO HARREMANAK

Zoritxarrez albiste ugari eta garratzak iristen zaizkigu gizon eta emakumeen arteko harremanei buruz, gehienez azken horiek izanik kaltetuenak. Hori ez da, ordea, azkenaldian sortutako gaitza, eta herriko historian aurki ditzakegu zenbait datu gaiari buruz. Horrela, 1658an Maria Nikolas de Etxeberriak bere senarrari zauri eta txatu txarragatik jarritako auzia aurki dezakegu.

Maria Bentura de Zigaraneke bere senar Inazio de Zelaianen aurka jarritako auzia, zauriak eta txatu txarrak gain, elkarren arteko ondasun guztiak xahutzeagatik. Udalak jarritako auzia Antonio Etxegarairi 1700. urtean, mehatxuak egiten baitzizkion bere emazteari zein beste herritar batzuei zela zituela gaitzat. Berdin jokatu zuen Udalak Juan de Ugarterekin ere, bere emazteari txarrak

ematen ahalegintzeaz gain herrian eskandalo bihurtu baitzen.

Auzi bat jarriko zitzaion 1725ean Inazio de Bereziartuari, San Inazio gauean makila batez jo baitzuen Maria Ana de Larraar.

1820an Jose Antonio Apazetegiri herriak jarritako auzia, emazteari txatu txarrak emateagatik, baina zerbait esateko asmoz hurbildu zitzaion alguazila ere jo zuela kontuan izanik.

Ez zen nolanahikoa Martin Odriozola Gautxori, ofizioz jostuna. Hiru auzi zituen bere bizkar 1684an. Haietako bat, herriko alguazilari txatu txarrak emateagatik. Beste biak, berriz, bi emakume zauritzeagatik.

1676an gai ezberdin bat zen auzitan, Inazio de Odriozola eta Graziana de Goikoetxeak, Katalina de Ibarraren aitagarreba eta izebak,

garai bateko Azpeitiye ...Imanol Arregik kontatua

Behin batean Loiolan...

Dantzaldi eta jai giro ederra gogoratzen ditu Imanol Arregik San Jose festetan; “diru asko ateratzen genuen elkartean”

finitze Oruesagasti

Martxoak 9, San Jose egunez erromeria eta festa bikaina izaten ziren Imanol Arregiren gazte garaian Loiolan. “Nik gurasoei entzuna dut, lehen Loiolan festak San Isidroren ospatzen zirela, baina eztabaida batzuk bitarteko festa egun hori bertan behera gelditu zen. Urteekin, auzotar talde bat San Jose egunean jaia antolatzen hasi zen Loiolan”, dio Imanol Arregik. “Sanjoseetan giro txarra egiten zuela ikusita, panpanotegian tolo bat jartzen genuen. Hasiera batean orkestrarik gabe, baina denborarekin jaia hazten joan zen”.

Festa handitzen joan zen bezala, Loiolatxo Elkarteko kideek, panpanotegian toloa jarri beharrean, elkarte aurrean estalpea jartzea hobe zela pentsatu zuten. “Horrela, elkarteko ok barra jartzen genuen edariak-eta ateratzeko. Diru asko ateratzen genuen eta bildutako-

arekin, elkarteko obrak aurrera ateratzen genituen”. Loiolatxo aurrean toloa jartzen zen garaian, Loiolan Aita Santua etorri zenean baino jende gehiago biltzen omen zen Arregiren hitzetan. “Izugarria izaten zen hura. Gogoan dut urte batean, Uitti-k Loiolan duen garaje azpi horretan ere festak ospatu genituela. Halako batean ikurrin bat azaldu zen. Egundoko estuasunak pasatu genituen, garai hartan ikurrina galarazia baitzegoen”.

Erromeria eta herri kirolak ez ziren faltan izaten festan, baina horretarako festa aurrez antolatu beharra zegoen. “Auzotarrok, Loiolatxo Elkartean festa antolatzeko talde bat osatzen genuen guztia prestatzeko. Oraindik ere horrela egiten da”. Imanolen hitzetan, lan asko egiten zen lehen festa aurrera ateratzeko. “Lana eta umorea ez ziren falta izaten. Behin barran lana egitea tokatu zitzaidan. Edariei jartzen zaien izen zelebreak ikusita, norbaiti adarra jo behar niola pentsatu nuen. Halako bate-



Nahiz eta goiko irudia antzerkia izan, lehen ere bazen tratu txarrik. / IMANOL ELIASEN LIBURUTIK

● **AUZIAK.** 1684an hiru auzi zituen bere bizkar Martin Odriozola *Gautxori*-k; bat alguazila jotzeagatik eta beste biak bi emakume zauritzeagatik

pozointzen ahalegindu zirela zabaldu baitzen herrian.


Ezaugarri bakar batzuk besterik ez dira aipatzen hemen, *Gautxori* bat besterik ez dugu aurkitu historian, baina gaur egun gure kaleetan gautxori bat baino gehiago dago.

abizena

ARANGUREN

● **Armarria.**

Fondo gorrian haritza bere kolore naturalean. Horren aurrean, otso bat pasatzen, hori ere bere kolore naturalean.



● **Abizenaren kokapena.**

- Azpeitia
- Errezil.
- Azkoitia.
- Zestoa.
- Ordizia.
- Antzuola.
- Aizarna.
- Segura
- Zeanuri
- Larrabetzu
- Biasteri.
- Amurrio.

● **Abizenaren hedapena.**

- Azpeitia (1705).
- Arrasate (1674).
- Urretxu (1814).
- Azkoitia (1747).
- Eibar (1578).
- Elgeta (1660).
- Bergara (1738).
- Urnieta (1776).
- Zumarraga (1807).
- Bilbo (1677).

'www.paisvasco.com' webguneetik hartuta dago.

komunikabidiek

MIEL ANJEL ELUSTONDORREN WEBGUNEAK

Miel Anjel Elustondo azpeitiarrak *Zaldi ero idazleekin* webgunea jarri du martxan. Proiektua Susa argitaletxearekin batera gauzatu du. *Zaldi ero*-k 200 idazleri eginiko argazkiak jasoko ditu webgunean. Gehienak, Elustondok berak idazleei eginiko elkarrizketetatik lortutakoak dira. Proiektu polita.



Loiolako Inazio zena Agiteri saria ematen. / I. ARREGI

“Orduan dantza gose zen jendea, eta era guztietan egiten genuen dantza”

Imanol Arregi



an gizon bat hurreratu eta *destornilladore* bat eskatu zidan. Nik orduan, eskua poltsikoan sartu eta *destornilladore* bat atera nion. Parre ederrak egin nituen”.

Imanol Arregi trikitilaria da, eta bere auzoko festetan panderoa askotan jotakoa gainera. “Urte haietan trikitia orkestraren deskantsuan jotzen zen. Jendeak berdin-berdin jarraitzen zuen dantza egiten. Orduan dantza gose zen jendea. Bai suetoan bai balseoan, era guztietan egiten genuen dantza”. Oraindik orain panderoa jotzen du Imanolek.


“Panderoa jotzen berandu hasi nintzen baina 1936 urtetik 1956ra bitartean toki askotara iritsi naiz. Iturbide baserrian ez nuen nik pandorik ezagutu 36 urte egin nituen arte, guraso eta osaba trikitilariak izan arren. Gogoz kontra hasi nintzen baina mundu handian bukatu nuen”, aitortzen du Iturbidekoak.

gertuko pasadizue

KAUKASON ERE
PARRANDAN

● **JOSU BEREZIARTUA:** “Nondarrak zarete, ba, lagunok?” galdetu zigun afaltzen ari ginela, anima-anima eginda zegoen lagun talde batek. “Euskaldunak gara eta Elbruz mendia igotzetik gatoz” erantzun genion gure kalterako. “Baski, baski!!! Hauek gure anaiak dira” oihukatzen zuten, dozena-erdi vodka botila gure mahai gainean jarri zituzten bitartean. Beraiekin beraien festa ospatzea beste aukerarik ez genuen izan. Elbruz igotzen gure gorputzak galdutako likidoa berreskuratzeke edaririk egokiena ez zen, baina ezin beraien jardunari ezezkorik esan”.

“Izarraiztik Everestera” liburutik hartuta. Azpeitiko Udalak argitaratua. 2001 urtea.



Josu Bereziartua —erdian—, Elbruzen. / IZARRAIZTIK EVERESTERA

osasune Julian Bereziartua (medikua)



AINGIRA

● **3-4.**
Aingira,
3-4 urte
dituenean,
angula
da

Txikitan, Ibai-ederren arrantzatu nuen lehen aingirak poza eman zidan, baina baita atsekabea ere; azken batean, amu eta guzti ihes egin baitzidan. Orain, biontzat onena izan zela pentsatzen dut gerta-kizun hori.

Arrain *katodromo* hori, gure munduko bizitzak duen misterioaren zati bat da. Itxuraz, duela milaka urte Egiptoko Kopaika intziran arrantzatzen zituzten aingirak ospetsuak ziren. Ezaguna da, bestalde, erromatarrek arrain-haztegietan hazten zituztela; baita hirieta-rako ur depositoetan ere, ura garbitzen zutelakoan. Euskal Herrian ere gaurdaino sinetsi izan da hori.

Arrain horri buruz azterketa ugari egin dira; kode-genetikoa oso konplexua du eta bere bizitza zikloa benetan miragarria da. Gaztaroan bizi izan zen lekua-ren bila, oso bide luzea egin ondoren bere burmuinean betiko gogoan geratu zaiona bete arte.

Gastronomiaren ikuspegitik, hiru edo lau urte ditue-nean asko gustatzen zaigu, baina beste izen bat ezar-tzen diogu: angula. Hala ere, Japonian nahiago dute heldutako angula; hau da, aingira. Japoniarrei zenba-teraino gustatzen zaien adierazteko esan dezagun, miloika angula hegazkinez ematen dituztela, hazte-gietara.

Koh Tao

OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3 Tel.:629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

CENTERPOINT ACADEMY

Ingelestegia- English School

- HAURRENTZAKO KLASE BEREZIAK
- IKASTALDE TXIKIAK
- ORDENAGAILUZ ETA BIDEOZ LAGUNDUTAKO IRAKASKUNTZA
- INGELESEZKO LIBURUTEGI ETA BIDEOTEKA
- AZTERKETARAKO PRESTAKETAK. HIZKUNTZ ESKOLA OFIZIALA, CAMBRIDGE, TOEFL

HELDUENTZAT 0-TIK HASITAKO TALDEAK

ZATOZTE!!!

Foru Ibilbidea, 7-1 ezk. Tel.: 943 81 65 03

Ihintza Agirretxe

Martxoaren 8a egun seinalatua da mundu guztiko egutegietan; izan ere, emakumearen nazioarteko eguna ospatzen da. Ez da seinale ona izaten urtean egun bat bakarra izatea zerbaitez gogoratzeko, baina egun horretan behintzat normalean iristen ez diren lekuetara iristen da oihartzuna.


Egun horretan, emakumearen eskubideak aldarrikatzen dira, berdintasunerako eskubideak. Izan ere, nahiz eta XXI. mendean sartuta egon eta berdintasunean bizi garela pentsatu, oraindik asko falta da benetazko berdintasunera iristeko.

Zenbat emakume ikusten ditugu eraikuntzan lanean? Zenbat empresaburu? Zenbat kirolletik bizitzen? Horrelako galdera asko daude, baina ondorengo asteetan ahaztu egiten dira.


EKITALDIAK. Emakumearen nazioarteko eguna dela medio, herriko zenbait taldek ekitaldi edo ekintzak antolatu dituzte. Horrela, Udaleko Gizarte Zerbitzuak hitzaldiak eta mahainguruak antolatu ditu. Mahainguru horietako batean, herriko zenbait emakume kirolari izango dira beren iritziak eta bizipenak azaltzen eta eztabaidatzen.

Beste aldetik, Izarraizpeko Sorginak Taldeak, urtero bezala kartel lehiaketa bat antolatu du. Horretaz gainera, beste ekitaldi batzuk ere antolatu dituzte egun horretarako: sagardotegi batera irteera, esate baterako.

Beraz, Azpeitian ere ez dira faltako ekitaldiak martxoaren 8an. ●



**ESNATU! GOZATU!
BORROKATU!**



URTERO KARTEL LEHIAKETA.

Izarraizpeko Sorginak taldeak urtero kartel lehiaketa antolatzen du. Hementxe daude kartel irabazle batzuk. Goian, ezkerrean, 2000ko irabazlea, eskubian 2001ekoa. Aldamanean, ezkerrean, 2002koa; bestea, 2003koa. 2004koa, laster, www.uztarria.com-en.

MARTXOAK 8, URTEROKO ALDARRIA

Urtero bezala, emakumearen nazioarteko eguna dela-eta ekitaldiak antolatu dituzte Udalak eta Izarraizpeko Sorginek

www.uztarria.com

DISKOTEKA IREKITZEAR

Hilabete barru bukatuta izatea nahi omen dute Landetako dantzalekua; bitartean, bizilagunak eta tailerretakoak zain daude, gertatuko denaren esperoan



Diskoteka aurrean langileak lanean, Landetan. Uztarriari ez zioten barrura sartzen utzi. / UZTARRIA

Uztarrria

Diskoteken mamua ere iritsi da Landeta auzora, laster irekiko dutelako berria, bertako langile batek Uztarriari esan dioenez, eta inguruko jendeak badu kezkarik, giroa baldintzatuko duelakoan.

Akotei kotxe garajearen ondoan kokatuta dago lokala, Zubi-zar jatetxearen aurrean. Obretan hasteko baimen es-

kaera Azpe Ocio S.L. Tolosa-ko enpresak egin zuen, 2002-ko abenduan, baina 2003ko maiatzean jaso zuen lizentzia. Ordutik ari dira, nahiz geldirik ere egon izan den.

Dena omen da "zelebrea",

Uztarriak han inguruan galdezka jardun eta batzuek esan diotenez. "Langile guztiak kanpotarrak dira eta dena erdi isilpean daramate. Guk herrian entzun genuen zurrumurrua, inguruko batzuk

● **GIROA.** Elgoibarren hango diskotekarekin gertatzen den bezala, giroa baldintzako duelakoan daude auzoko batzuk; beste batzuek alde onak ikusten dizkiote

elkartu egin ginen eta udaletxera jo genuen, lokalean zertan ari ziren jakitera", diote auzokoek. Obretako baimena emanda zutela esan zieten udaletxean, besterik gabe.

NORBAIT KARGU. "Hori ikusirik, guk, gure tailerrak arazoren bat izango balu, norbait kargu egitea eskatu genien, eta baietz esan ziguten. Orduan paperak bete genituen. Ikusiko dugu kasurik egiten diguten". Han ondoko tailerretako langile batek dio kotxeak-eta kanpoan uzten dituztela, "eta gero ere horrela jarraitzea nahi dugu".

Elgoibarren ere diskoteka dago, eta han kezkatuta daude herritarrek, "giro txarra" sortzen delako asteburuetan. Bada pentsatzen duenik Azpeitian ere horrelakoa gertatuko dela. Kontrakoa uste duenik ere bada: "Horrela, gazte jendea herrian bertan geldituko da eta nik ez diot alde txarrik ikusten, momentuan behintzat", dio auzoko batek. Kotxeen tailerretako langile batek ere alde ona ikusten dio: "Guk autoak saltzen ditugu, eta hona etorriko den jendeak horiek ikusi eta agian salmentarako ona izango da diskoteka, batek daki".

Orain, hilabete barru obrak bukatu eta Udaleko eta Osasun zerbitzuko arduradunen onespina baino ez da falta irekitzeko. ●



kutxa

gizarte ekintza




zenbakia apirilean

uztarria

IKUSTEKO AIZANGO DA

URTEKARIA berria



HILABETEZ HILABETEKO KRONIKA
DATUAK IRITZIAK
URTE GUZTIKO ALBISTEAK ARGAZKIETAN
'EGUNKARIA'-REN ITXIERARI BURUZKO DOSIERRA

MARTXOAREN 6AN
ZURE KIOSKOAN



+2€

Harpidedunentzat
DOAN: Kioskoko
harpidedunok zuen
kioskoan jasoko
duzue, eta eberraino
banaketa duzuenok,
etxean bertan

Euskaldunok behar dugun

berria

telefono zenbakiyek

ERAKUNDEAK -

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	85 10 00
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	81 51 00
Anbulategia-larrialdia	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA-Donostia	46 46 22
SOS Deiak	112

KOMUNIKABIDEAK

Uztartaria herri aldizkaria	15 03 58
Urola-Kostako Hitza (Azp.)	81 38 41
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943-30 40 30
Gara (Herriak Saila)	943-31 69 99
Deia (berriemailea)	72 57 75
DV (berriemailea)	15 09 94
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943-01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
Habea	15 72 00 (138)
EA	81 00 11

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

KULTURA - EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89

Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztartaria Kultur Koordi.	15 03 58
Antxieta Etxea	81 35 40
Kontseilua	943-59 12 00

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Euskaltel-informazioa	900-84 00 65
Telefónica-informazioa	1003

farmaziyek
gauez

MARTXOAK 1-2-17-19

Gisasolo (Azkoitia). 02 65 15

MARTXOAK 3-4-5

Azpiazu (Azkoitia). 85 29 89

MARTXOAK 6-7-15-16

Ruiz (Azkoitia). 851966

MARTXOAK 8-13-14-22

Beristain. 811949

MARTXOAK 9-25

Etxebeste. 815974

MARTXOAK 10-24-29

Garcia. 811274

MARTXOAK 11-26-30

Zulaika. 150334

gune
publikuek
irikite

UDALETXEA

Astegunak: 9:00-13:30

Larunbatak: 9:00-13:00

IXPIXIOA

Egun osoz irekita

IGERILEKUA

Astelehenak: 14:00-21:00

Beste astegunak: 7:00-21:00

Larunbatak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

Kanpoko igerilekua: Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA

Astelehenak: 9:00-13:00, 15:00-21:00

Beste astegunak: 15:00-21:00

Larunbatak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

Aste Santuan, udan (abuztuan itxita) eta Gabonetan: astegunetan, 9:00-13:00

autobusen ordutegiak

JOATEKO

AZPEITIA-ZESTOA-DONOSTIA

Astegunak: 6:50 (1), 7:50 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2)

Larunbatak eta abuztuko astegunak: 7:50, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15

Igandeak eta jaiegunak: 15:10, 19:15

Enpresa: La Guipuzcoana

Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik

AZPEITIA-EIBAR-BILBO

Astegunak: 6:30, 13:00, 18:30

Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30

Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 19:30

Enpresa: Pesa

AZPEITIA-EIBAR-BILBO

Astegunak: 6:35, 13:30

Enpresa: Piper Unibertsitate Elkartea

AZPEITIA-AZKOITIA

Astegunak: 6:55, 7:25, 7:50, 8:25, 9:25, 9:35, 10:15, 10:25, 11:25, 11:50, 12:25, 13:25, 14:25, 14:35, 15:25, 16:25, 16:35, 17:25, 18:25, 19:15, 19:20, 19:25, 20:25, 22:25

Asteburuak eta jaiegunak: 7:00, 7:40, 8:40, 10:15, 10:40, 11:20, 12:45, 13:20, 14:40, 16:40, 17:05, 17:20, 18:40, 19:15, 19:35, 19:40, 21:35, 21:40

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ZESTOA-ZUMAIA

Astegunak: 6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10

Asteburuak eta jaiegunak: 7:25, 9:25 (2), 10:25, 11:45, 12:25, 13:45, 14:25, 16:25, 17:45, 18:25, 20:25, 21:25, 22:05

Enpresa: EuskoTren

Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarna-zabaldik pasatzen da

AZPEITIA-ZESTOA-ZARAUTZ

Astegunak: 6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10

Asteburuak eta jaiegunak: 15:40, 18:10, 20:10

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ZUMARRAGA (hospitela)

Astegunak: 6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25

Asteburuak eta jaiegunak: 7:40, 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 16:40, 18:40, 19:40

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ERREZIL-TOLOSA

Astegunak: 6:55, 13:55

Asteburuak eta jaiegunak: 6:55, 11:10

Enpresa: EuskoTren

GARRAIO ENPRESEN EDO ELKARTEEN TELEFONO ZENBAKIAK

Aldalur	85 27 18	Pesa	21 26 99
EuskoTren	15 06 77	Piper Unibertsitate Elkartea	85 25 87
La Guipuzcoana	85 11 59	Taxiak	81 13 07

ITZULTZEKO

DONOSTIA-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 7:50, 8:50, 11:05, 12:05, 13:05 (1), 14:05 (1), 15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1), 20:00 (3), 20:30

Larunbatak eta abuztuko astegunak: 8:50, 12:15, 14:30, 16:00, 18:00, 20:00

Igandeak eta jaiegunak: 18:00, 20:00

Enpresa: La Guipuzcoana

Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 3: Eskola egunetan soilik

BILBO-EIBAR-AZPEITIA

Astegunak: 10:30, 14:30, 21:00

Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30

Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 12:30, 21:00

Enpresa: Pesa

LEIOA-BILBO-AZPEITIA

Astegunak: 14:00, 20:00

Enpresa: Piper Unibertsitate Elkartea

AZKOITIA-AZPEITIA

Astegunak: 6:30, 6:45, 7:00, 8:05, 8:15, 9:00, 10:00, 10:30, 11:00, 12:00, 13:00, 13:15, 13:45, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00

Asteburuak eta jaiegunak: 6:45, 7:15, 9:15, 10:15, 11:00, 11:35, 12:15, 13:35, 14:15, 15:30, 16:15, 17:35, 18:00, 18:15, 20:00, 20:15, 21:15, 21:55

Enpresa: EuskoTren

ZUMAIA-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 6:00, 6:30, 7:00, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 22:00

Asteburuak eta jaiegunak: 6:35, 7:15, 8:15, 10:15, 10:55, 12:15, 12:55 (2), 14:15, 16:15, 16:55, 18:15, 16:55, 18:15, 19:15, 21:15

Enpresa: EuskoTren

Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da

ZARAUTZ-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 7:15, 9:00, 11:15, 14:00, 16:00, 18:45

Asteburuak eta jaiegunak: 16:30, 19:00, 21:00

Enpresa: EuskoTren

ZUMARRAGA (hospitela)-AZPEITIA

Astegunak: 7:35, 9:30, 11:30, 13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30, 20:30

Asteburuak eta jaiegunak: 8:45, 9:45, 11:45, 13:45, 15:45, 17:45, 19:45, 20:45

Enpresa: EuskoTren

TOLOSA-ERREZIL-AZPEITIA

Astegunak: 9:30, 18:30

Asteburuak eta jaiegunak: 9:30, 12:00

Enpresa: EuskoTren


argazkiyek: Fundiziyue

Hamar urte egin eta taldea desegin da

● **FUNDIZIYUE.** Fundiziyue musika taldea 1994an sortu zen Urrestillako rock taldeen lokaletan. Hasieran beste partaide batzuk izan zituen. Gero, ordea, Irimo, Jon Alberdi, Ondarru, Joxemai Larrañaga eta Jon Iraeta izan dira.

● **HAMAR URTE.** Hamar urte egin eta taldea desegin egin da aurten, otsailean. Ibilbide horretan Euskadi-Gaztea Saria irabazi eta disko bat atera zuen Fundiziyuek. 2000. urteko abenduan bigarren disko atera zuten. Honatx argazkiak.





1. TALDE OSOA.

Fundiziyue musika talde osoa, ezkerretik eskuinera: Joxemai Larrañaga, Joseba Iribar *Irimo*, Jon Iraeta, Aitor Bengoetxea *Ondarru* eta Jon Alberdi.

2. ENTSEGUAN.

Urrestillako lokalean, entsegu garaian Larrañaga eta Iraeta, taldeko bi azkoitarrak.

3. BATERIA.

Ondarruk jotzen zuen bateria, taldeko gazteenak.

4. KITARRA.


Irimok Fundiziyuen kitarra jotzen zuen. Batzuetan ahotsarekin lagunduz Alberdiri.

5. AHOTSA.

Fundiziyue taldearen ahotsa Jon Alberdi izan da. Bera, entseguko lokalean.

6. DISKORAKO.

Diskoetako azalak egiteko bestelako argazkiak atera behar. Musika instrumentuak utzi eta argazkilariak esanda bezala jarri behar.





7. FUNDIZIYUE.

Fundiziyue talde osoa, Amue zubian, atzean herriko fundizio bat dutela.

8. JATEN.

Talde osoa elkarrekin bazkaltzen. Diskoaren grabazio egunetako bat.

9. ENTZUTEN.

Fundiziyuekoak grabazioa entzuten, Atxuiya eta Zubizarretarekin batera.

10. KONTZERTUAN.

Fundiziyue Kilometroak 2000n, kontzertuan. Ehun kontzertu inguru eman dituzte hamar urtean.



IRRIBARRE BAT HERRIAN

Bizhitza berri bat sortu da herrian. Noiz, eta inauteri festa erdi-erdian. Noiz, eta elegante egun aitzinean, XIX. mendeko jantzi ohituraren ambientean. *Hitza* ez dator mozturorik, ez doa aurrera atzera begiratu, bere benetako aurpegia erakutsi du hasieratik, bere benetako nortasuna eta bere benetako sentimendu nahiz emozioa. *Hitza*, zuri buruz hitz egiteko jaio da, zure hizkuntzari buruz, zure kulturari buruz, zure eguneroko interesei buruz.

Orain arte euskal prentsa, liburu eta bestelako lanei, inauterien trataera eman izan diogu herrian. Urtean behin euskal mozturorik jantzi eta euskal prentsa irakurtzeari ekiten diogu, badakizu, pixka bat deskonektatzeko, ohituratik kanpo. Urteko beste egunetan, berriz, gure hizkuntza maite ez duen prentsarekin esnatu eta gure kultura baztertzeko duen prentsarekin lokartu izan gara. Ah!, eta guztia ohiturari jarraituz.

Ohiturak ezin dira minutu batetik bestera aldatu, ezta egun batetik bestera ere, eta are gutxiago Azpeititik Azpeitirako tradizio bidean. Baina zalan-tza daukat prentsa erosteko eguneroko ariketa horretan indar handiagoa zerk ote duen: erakusleioak ala edukinak. Gure herriak, gure futbol taldeak, eskeletako aurpegi ezagunek badute erakusleio berria eta, gainera, guk maite dugun hizkuntzan. Guztiok sentitu genuen zerbait euskara hutsezko egunkari bakarra akabatu zigutenean, guztiok hartu genuen larunbat arratsalde bat libre, Donostiako kaleetan barruko amorrua eta aldi berean ilusioa kanporatzeko. Orduan oso bero geundelako eta ondoren egunerokotasunean murgiltzen garelako. Gure kontzientzia euskaltzalea indartzeko, egunero eduki ahal izango dugu gure buzoietan berotasun hori.

Orain arte egindako lana izugarria izan da eta horrek guztion txaloak merezi ditu. Baina hemendik aurrera egiteko dagoenak beste dimentsio bat du. Norbere eraikuntzatik Euskal Herria eraiki behar dugu eta Euskal Herriaren eraikuntzatik albokoa aberastu, emozioa transmititu. Guztiok baikara euskaltzaleak sentimenduz eta ez hain euskaltzaleak praktikan. Amnesia jota bizi garen sentsazioa daukat, horregatik ospatzen dira egun esanguratsuen urteurrenak, momentu batez bada ere oroimenak sentimenduekin batera lan egin dezan.

Ruper Ordorika, bere azken diskoan lau hitzetan zure bizitzaz mintzo da, zaindu maite duzun hori adieraziz. Zaindu, bestela galdu egingo duzu, eta

ESALDIA.

Zaindu maite
duzun hori,
berriro diot,
zaindu.

galtzean konturatuko zara zenbat maite zenuen. Orduan erreakzionatzen saiatuko zara, erreku-pertu arteko onik ez duzu izango eta berriro galdu arte, guztia zirkulu bat bezala.

Gure eguneroko edo ohiturazko bizitzan, gure hizkuntza maite ez duen prentsa batekin esnatu eta gure kultura baztertzeko duen prentsarekin lokartzen gara. Egunero zaintzen dugu, eta ez digu ihes egiten. Egunen batean gure hizkuntza eta kultura maite ez dituen prentsa akabatuko balute, ez ginateke Donostiara joango haren aldeko oihuak jaurtitzera, ez genuke amorrurik sentituko, ez genuke erreakzionatuko. Itxiturarik gabeko zirkulu bat sortuko litzateke, erdian amildegi batez eta ez ginateke amildegi hori zeharkatzen saiatuko. Hori guztia zergatik? Ba prentsa hori ez dugulako sentitzen, ez dugulako maite.

Zaindu maite duzun hori, zure hizkuntza maite duelako, zure kultura maite duelako eta, gainera, zure herria maite duelako. Zaindu, bestela ihes egingo duzu eta bere falta sentituko duzu eta ez duzu bera aurkitu arteko onik izango, berriro galdu arte. Bizhitza berri bat sortu zaizu.



As.	At.	Az.	Os.	Os.	La.	Ig.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

MARTXOAK 4 (osteguna)

● HITZALDIA.

Ikasberri Azpeitiko Ikastolak antolatuta, Euskal Eskola Nazionalaren Egunarekin lotuta. Gaia: 1000. urteko nafarrak. Hizlaria: Nabarraldeko kide Erlantz Urtaşun Antzano historialaria. Euskaraz. Ikusentzunezko aurkezpena ere egingo da, eta bukaeran hitzaldiaren laburpen idatzia banatuko da. Ikastolako lehen pisuko aretoan.

MARTXOAK 7 (igandea)

● MENDIA

Urbigain-Otzaurte egun guztirako mendi irteera. Lagun Onak M.B.k antolatuta.

MARTXOAK 8 (astelehena)

● ERAKUSKETA.

Julian Ruiz azpeitiarraren margoen erakusketa. Martxoaren 26 arte irekita egongo da. 18:00etatik 20:00etara. Antxieta etxean.

● HITZALDIA.

Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatuta, emakumearen eguna dela-eta, Alizia Stürtze historialari eta filologoak Emakumea Euskal Herriko

Loiolako San Jose festak: biatloia, asto karrera, afaria...

● EKITALDIA: Loiolako San Jose festak ● EGUNA: Martxoaren 19an eta 20an (ostiralean eta larunbatean) ● ORDUA: Egun guztian antolatutako ekitaldiak ● TOKIA: Loiola ● ANTOLATZAILEA: Loiolako Festa Batzordea

Ihntza Agirretxe / Urtero bezala, aurten ere San Jose egunez Loiolan urteroko festak ospatuko dituzte. Aurten ostirala da martxoaren 19a ostirala, eta, beraz, festak aste bukaera osora luzatuko dira.

Baina atzera begira hasiz, azkar konturatzeko gara zenbat aldatu diren auzo horretako festak. Garai batean, Loiola erromeriak oso ezagunak ziren; inguruko zenbat bikote sortu ote ziren dantzaldi haietan!

Urteak pasatzen doaz eta ohiturak ere bai. Gaur egun, Loiolako asto karrerak dira ezagunak eta jende ugari biltzen da igande goizez lasterketa hori ikusteko asmoz. Lasterketa horrek ere izan ditu, ordea, bere gorabeherak, astoen eskasia dela-eta, baina

aspaldiko urteetan asto ugari irteten dira karreran.

Azkenaldian, auzokoek biatloia ere antolatzen dute; III. sari nagusia izango da aurten goa. Horrela, pixkanaka-pixkanaka jende gaztea festa horietara inguratzen hasi da berriro.

Horretaz gain, 17:30ean herri kirolak izango dira basilika aurrean; harri jasotzaileak, aizkolariak...

Gainera, egun guztian, Epelde eta Iturbide trikitilariak ibiliko dira eguna musikarekin animatzen.

Martxoaren 20an, berriz, herri afaria antolatu dute, eta hori animatzen Laja, Poxpi eta Berasategi ariko dira.

Historian hitzaldia eskainiko du. Aitonena I-eko areto nagusian 15:30ean.

MARTXOAK 10 (asteazkena)

● MAHAINGURUA.

Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatuta, martxoak 8ko ekitaldien barruan. Gaia: *Emakumeak eta kirola*. Azpeitiko emakume kirolariek parte hartuko dute mahainguruan: Mamen Etxaniz (kirolaria), Onintza Zeberio (lasterkalaria), Leire Agirre (eskalatzailea), Maje Larrañaga (mendi-

zalea eta Lagun Onak Mendi Bazkunako lehendakaria), Arantxa Aldalur (lasterkalaria) eta Itxaso Kanpos (futbolaria). Moderatzaile lana, Eli Aizpuru kazetariak egingo du. Enparan Dorretxeko aretoan. 19:30ean.

MARTXOAK 11 (osteguna)

● HITZALDIA.

Udaleko Gizarte Zerbitzuek antolatuta, martxoaren 8ko ekitaldien barruan, *Diti minbi-ziaren goiz detekzioa eta Kattalin elkartek* prestatzen di-

tuen zerbitzuak Azpeitian gai hartuta, hitzaldia. Kattalin Elkartek emango du hitzaldia, eta Aitonena I-eko areto nagusian izango da, 15:30ean. Hitzaldia gazteleraz izango da.

● HITZALDIA.

Ikasberri Azpeitiko Ikastolak antolatuta, Euskal Eskola Nazionalaren Egunarekin lotuta. Gaia: *Itsas aldeko Nafarroaren konkista. 1200 urte inguruko gertaeretan sakontzen*. Hizlaria: Nabarraldeko Tomas Urzainki Mina historialaria. Gazteleraz. Ikusentzu-



LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- ASEGURAK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 30

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net



KIRURI K JATETXEA

Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62



AMALUP
lorazaintza

- ✳ Lorategien proiektuak
- ✳ Zuhaisken kimaketa
- ✳ Lorategi eta zelaiei mantenua
- ✳ Belar landaketa eta tepe egur, harri edo txilar jartzea

943-025319 (Azkoitia)
679106753 (mugikorra)



ATC TORREALDAY
aholkulari kontsultariak

Iberotarren plaza, 7 behea
Tfnoa.: 943 15 05 09
Faxa: 943 15 16 74
azpeitia@atctorrealday.com



Aliur
OKINDEGIA KAFETEGIA

Loiolako Inazio Hiribidea 6
943 81 38 01



nezko aurkezpena ere egingo da, eta bukaeran hitzaldiaren laburpen idatzia banatuko da. Ikasberriko Ikastolako lehen pisuan.

MARTXOAK 12 (ostirala)

• HITZALDIA.

Eneko Etxebarrietaren hitzaldia eta diapositibak. Gaia: *Munduari bira lau urtez; 45.000 kilometro, 35 herrialde*. Udaleko Gazteria sailak antolatuta. 21:30ean. Sindikatu Zaharrean izango da hitzaldia.

MARTXOAK 14 (igandea)

• SLALOM.

Amue elbarri elkarteak antolatuta, II. Slalom lehiaketa egingo da. 10:00etatik 13:30etara eta 15:00etatik 17:00etara izango da, Kiroldegian.

• MENDIA.

Eskolarteko XVII. mendi lehiaketa (Azkoitia izango da). Ibilaldi neurtua. Gazte txontzat izango da. Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. 08:00etan. Irteera plaza.

MARTXOAK 18 (osteguna)

• HITZALDIA.

Ikasberri Azpeitiko Ikastolak antolatuta, Euskal Eskola Nazionalaren Egunarekin lotuta. Gaia: *Sancho III El Mayor (1004-1035)*. Hizlaria: Nabarraldeko kide Aitor Pescador Medrano historialaria. Gaztelaz. Ikusentzunezko aurkezpena ere egingo da, eta bukaeran hitzaldiaren laburpen idatzia banatuko da. Ikasberri Ikastolako lehen pisuko aretoan.

MARTXOAK 25 (osteguna)

• IKUS-ENTZUNEZKOA.

Ikasberri Azpeitiko Ikastolak antolatuta, Euskal Eskola Nazionalaren Egunarekin lotuta. Dokumentalaren gaia: *Hegoekialdeko lurraldeen konkista*. Gaztelak Nafarroa garaia bereganatu zueneko. Ondoren solasaldia, Nabarraldeko kide Pello Esarte Muniain historialariarekin. Bukaeran hitzaldiaren laburpen idatzia banatuko da. Ikasberri Ikastolako aurreneko pisuko aretoan.

MARTXOAK 26 (ostirala)

• BERTSOLARITZA.

Bertsolari Gazteen II. Ernialdiz Sariketako finala. Finalera heldutako hamar bertsolari ariko dira. 22:00etan. So-reasu antzokian.

MARTXOAK 27 (larunbata)

• MENDIA.

Petit Vignemalera (Pirinioetara) astebururako mendi irteera. Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Aurrez izena eman behar da.

• ATLETISMOA.

Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia. Hamargarren urtez antolatuko da. 16:30ean hasiko da.

MARTXOAK 31 (asteazkena)

• ODOL-EMATEA.

Hileroko odol-emate eguna. Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak deituta. 18:30etik 21:00etara bitartean. Ambulatorioan.

MARTXOAK 27 (larunbata)

• URTEMUGA.

Pasaia sarraskiaren XX. urtemugako ekitaldiak. 13:00etan bertso poteoa, trikitilariekin. 14:30ean herri bazkaria, azoka plaza. 18:00etan antzerkia herriko plaza. 20:00etan manifestazioa. 22:30ean kontzertua herriko plaza.

Zeuon ekitaldiak-eta Uztarriara helarazteko aukerak:

- Julian Elorza Hiribidea 4, 1.a ezkerria (Azpeitia)
- 943 - 15 03 58 telefonoa / faxa
- uztarrria@topagunea.com



EPELDE INMOBILIARIA

Goiko Kale, 1 - Behea
Tfnoa/Faxa: 943 15 03 31
20730 AZPEITIA



ARTE ETA DISEINU
IKASTEGIA

> Talla19:30/21:00
> Pintura
(helduak) 17:30/19:00
> Marrazketa eta eskulanak
(haurrak)17:30/19:00

Astelehenetik ostegunera

Julian Elorza 4 - 1
943 - 81 28 08

ERAKUSKETA:

Eliz kalea, 12 - behea
Tfnoa eta faxa: 943 81 12 12
BILTEGIA:
Landeta Hiribidea, 19
Tfnoa. 943 15 16 66
20730 AZPEITIA
E-mail: iturralde@euskalnet.net


Bainuak
eta
bainu osagarriak
ESKAINTZEN DUGUNA

Iturgintza
Berogailua, klimatizazioa, EUB eta
beraen mantenu lanak
Gasa (EG-IV kategoria)
Erregai likidoak



ITURR M.D. Iturgintza, S.L.

“Beti gustau izen zait ordenadorien mundue”



AINITZE ORUESAGASTI

Urte askuen lanien eman dituen arren, orain jubilatute dago Josu Agirre. Eta gustoko dituen gauzek egiten pasatzen du denborie.

• Ordenadorie ondo menderatzen omen dezu?

Alaba irakasle da eta etxien ordenadore bat daukegu. Nik ordenadorien ibili ahal izateko kurtso batzuk egin izen ditut. Lehen, almatzen lanien ibiltzen nintzenean, sarrerak eta irteerak emateko bakarrik erabiltzen nuen ordenadorie, baino orain gauze asko egiten ikasi det.

• Nolatan animatu zinen ikastaro hoiyek egitera?

Beti gustatu izen zait mundu hori eta aukera sortu zani, izena eman nuen kurtso ezberdinetan. Nere gustoz ari naiz. Ibiliyetz asko ikisten det.

• Jende asko ibiltzen al da kurtso hoiyetan?

Nire edadeko gutxi. Hasiara batien jendie apuntatzen da, baina gero zailtasunegatik-edo laga egiten debe. Beste batzuek ordenadoriek gaztientzat bakarrik direla uste debe, eta hori ez da hola. Nik jendie animatuko nuke ikisterra.

• Baino ordenadoriez gain badezu beste denbora-pasarik...

Bai. Nere familiko arbol genealogikoa ere eginda dauket. Donostiako seminarioa joaten nintzen datuek biltzera. Lagun batek lagundu zidan. Urte eta

erdi eman zidan bilaketa guztiyek egiteak, baino datu asko bildu nituen. Nere birraitonaren aittan datuek ere lortu nituen. Gustora egindeko lana da.

• Eta orain zerbait egiten ari al zera?

Bai. Imanol Eliasek idatzitako eta zuek, Uztarriak, argitaratutako *Azpeitiko Efemeridak* liburue leitu berri det. Gustokue, gertukue, atentziyue ematen diben datuekin zerrenda bat egin det. Horrela, datu hoiyen inguruko bilaketak

egiteko gero.

• Zer iruditu zaizu liburue?

Liburue oso ona dago. Dena irakurri det, gero nere zerrenda hori egin ahal izateko.

• Zein da gehien harritu zaituen datue?

Datu asko dago. Batik bat neri interesatzen zaizkiten datuek dirr; San Inazioaren martxien inguruko enfrentamenduek, ikurrine galez zutenekue, ni bizi naizen kalearen izen aldaketak...

• Datu hoiyekin gero ze...

Printzipioz, datu hoiyek

nere intereseko gaien ingurukuek dire, baino etxekuentzat hor geldituko diren bilaketak dire.

• Herriko historiye ondo ezagutzen dezula esan daiteke, hortaz...

Nik, bizitakue, etxien gurasuei entzundakue, hori da nere jakintze guztiye.

Ainitze Oruesagasti

TXIKITEKO AMETSA. “Egiye esan, txikiten ez nauken amets berezirik. Nik uste garai hartan ezin zela geroako zen ezertaz amestu, garai zailek zien eta”



**gaurko diseinu eta kolore berriak,
beti egurrean**



www.lasao.com

Lasao Industrialdea- 20730 Azpeitia - 124 postakutxa

Tel. 943 15 11 82 - Faxe: 943 15 10 98

informacion@lasao.com



Eskaintzen ditugun zerbitzuak eta produktuak

Ordenagailuen eta portatilen salmenta



Markako PC-ak

Gure markako PC-ak

Portatilak

Periferikoien salmenta eta konponketak



Multifuntzioak

Formatu handiko inprimagailuak

Laserrak

Kontabilitate kudeatze programen ezartzea



Kudeaketa programak

Kontabilitate

Nominak

Erregistratzaile, balantza eta TPVen salmenta



Informatika zerbitzu teknikoak



Zerbitzu Teknika azkarra

Mantenu Kontratuak

Sare informatikoen instalazio eta kudeaketa



Sareen diseinua eta muntiaia

Sareen mantenua

Serbitzuak

WEB orrien diseinua eta mantenua



D MacroWeb
2002
Corporate

D MacroWeb
2001
Tienda

D MacroWeb
2001
Escaparte

Informatika aholkularitza




Komunikazio osoa puntu bakarrean
zure etxean

☎ - Nahi beste dei probintzia barruan hilean

@ - 24 orduko tarifa finkoa 22 €

☐ - Goi mailako irudi kalitatea eta 17 kanal



Azpeitia
Pablo VI 19 behea
943 157 321

Azkoitia
Julio Urkixo 10 behea
Telf: 943 85 36 60

Zarautz
Kale Nagusia 1 Be
Telf: 94313338

Banatzaile Ofiziala
Euskaltel

Urola-Kostako

hitza

etxean jasotzeko deitu:

943 30 43 46 zenbakira

- Uztarriako harpide eta bazkideek ez dute deitu beharrik
- Zure buzoian egunero jasotzeko ekarri karrerako giltza Azpeitiko egoitzara